

free
THEM ALL

2 5 3

EUSKAL PRESOEN ALDEKO BATZORDEA - SORTU

09 2019ko uda

Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-1471-2012

kalerainfo



BAKEA ETA ASKATASUNA IRABAZTERA





NI ZU BI

Pasa den martxoaren 16an larriki gaixorik dauden presoek aldeko ekimena burutu zen Bilbon. NI ZU BI herri ekimenak Bizkaiko hiriburuko zubietan erri dauden presoek askatasuna aldarrikatu zuten; horretarako legedia aplikatzea baino ez dela egin behar gogoratu. San Anton, La Merced, Arenal, Zubi Zuri, Pedro Arrupe, udaltxeko eta Deustuko zubietan ordu erdiko elkarretaratzea egin ondoren, Arriagaraino manifestazioan atera ziren parte hartu zuten 4000 lagun inguru. Bertan burutu zen ekitaldian kalera ateratzera eraman zituzten arrazoiak azaldu zuten ekimeneko bultzatzaileek eta SAREko kideek.

Kepa Arronategi, Ibon Iparragirre, Txus Martin, Joseba Borde eta Gorka Fraile preso bizkaitarren senideek eta lagunek ekimena aurkeztu zutenean oinarrizkoenak batzen gaituela adierazi zuten. “Zubi batek bi ertzak bezala. Oinarrizkoenak batzen gaitu, bizitzaren eta pertsonen integritate fisiko zein psikikoaren eskubideak ideologia ezberdinetako pertsonak batzen ditu, gazte zein nagusi, herri batekoak zein bestekoak. Pertsona oro inarosten da besteen minaren eta sufrimenduaren aurrean; are gehiago, hau ekidin ahal denean”. Ideia hauek gidatuta planteatu zuten ekimen berezi hau.

NI ZU BI ekimena gaixo dauden preso bizkaitarren aldeko plataforma ezberdinen babesa jaso zuten, baita SARE herri-tarraren babesa ere. Izan ere, SAREk behin eta berriz salatu izan du erri dauden presoek egoera eta aplikatzen dieten salbuespen legedia, euren askatasuna exijituz eta urgentea den egoera honi irtenbide bat bilatzeko indarrak metatuz.

Preso bizkaitar hauen askatasunaz gain, osasun arazoak dituzten preso guztien kaleratzea aldarrikatu zuten Bil-

bon. Egoera horretan dauden presoak 21 dira, Jaiki Hadi elkarteak berriki jakinarazi duen moduan; horietatik 15 zerrenda publikoan agertzen dira, beste 6en kasuak anonimatoan mantentzen direlarik.

Elkarte honek gaixotasun larriak dituzten presoek kopurua gora doala salatu zuten, zigor luzeen eta presoek adin handien ondorioz. Kontuan hartu behar da ere urte luzeetako zigor horiek zer baldintzetan betetzen dituzten; kasu gehienetan egoerarik okerrenetan (lehenengo graduan, Euskal Herritik ehunka kilometrora, euren eskubideak defendatzeko gose grebak egitera behartuta, funtzionarioen jazarpena edota jipoiak sufrirituz...).

Ekimen honen bitartez, botere publikoei deialdia luzatu zieten antolatzaileek; izan ere, osasun arazo larriak dituzten presoek askatasuna legezkoa da, eskubide bat da eta legedi penitentziarioan jasota dago. Horregatik, instituzioei preso hauen eskubideak errespetatu eta gauza ditzaten eskatu zieten, “bizitzeko eskubidean eta pertsonen integritatean oinarritzen den legea aplikatuz”. Legediak bi printzipio unibertsal hauek bermatzeko bitartekoak ditu eta onartezina da azken momentura arte luzatzea eskubide horien aplikazioa. Are onartezinagoa segun nor den pertsona aplikatzea edo ez.

Krudelkeria horrekin bukatzeko, larriki gaixorik dauden presoek askatasunaren aldeko ekimen gehiago iragarri du SAREk. Apirilaren 7an, osasun eskubidearen nazioarteko egunean, 21 euskal presoek kasua salatzen ekimenak burutuko ditu. Hainbat herritako zubietan elkarretaratzeak deitu dituzte, “zubiak eraikitzen” segituko dutela adieraziz. Zubiak eraiki denon artean preso erriak askatzeko.

Helmugarako gutxiago falta da!



Sakanan burutu zen Lasterbidean lasterketaren VII. edizioa eta 1.500 lagun baino gehiago bildu ziren

Duela bi urte Lakuntzan musikaren esparrutik Euskal Herrian inoiz egin zen elkartasun jaialdirik handiena egin zuten eta, aurten, Arbizon eta Lakuntzan, kirolaren eremutik, presoen aldeko Lasterbidean elkartasun lasterketak espektatiba guztiak gainditu zituen. Maiatzaren 19an, hautets kanpainaren erdi-erdian eta eguraldiaren aurka, Lasterbidean guztiz arrakastatsua izan zen beste behin; euripean bai, baina beti bezain arrakastatsua.

Korrikaren kirol eremutik jaiota, euskal errepresaliatu eta beren gertukoekiko elkartasun herri ekimena da Lasterbidean. Kirol eremuan ari den jendeak antolatzen du urtero urtero lasterketa. Aurten, Maiatzaren 19an Arbizu-La-

kuntzan ospatu zen zazpigarren edizioa, "Leisterka denak itxaa!" lelopean.

Nazio elkartasun lasterketa da hain justu, euskal errepresaliatuekiko eta beren gertukoekiko elkartasun ekimen herri-tarra. Desagertzeko jaiotako ekimena da; "ez genuke halako ekimen gehiagorik antolatu nahi" esaten zuten antolatzailleek. "Horregatik, hau azkena izatea nahiko genuke. Baina azkeneko preso eta iheslaria etxean egon arte halako ekimenak antolatzeko konpromisoari eusten diogu". Egun osoko egitaraua izan zen, Arbizon goizez eta Lakuntzan arratsaldez: zumba beroketa, lasterketa laburra eta luzea, sari banaketa, Etxeraten ekitaldia, kalejira, herri bazkaria, zirku erakustaldia, herri kirolak eta eguna amaitzeko kontzertua.



Eguerdian Arbizun burutu zen ekitaldian Etxareteko kideek eskerrak eman zizkieten parte hartzaileei, ikusleei, laguntzaileei eta Sakanara etorritako guztiei. “Gure buruari erronka garrantzitsua jarri genion; lasterketa luze eta txikiaren artean 1.500 korrikalari biltzea.

Zorionak marka guztiak gaintzen ari garelako urtez urte! Zorionak gaur egindako kilometroak urrunketarekin eta dispersioarekin amaitu ahal izateko kilometroak direlako! Elkartasun eta maitasunez beteriko kilometroak dira gaur hemen zeharkatu ditugunak!”, nabarmendu zuten, eta “azkeneko preso eta iheslaria etxean egon arte halako ekimenak antolatzeke konpromisoari eusten” diotela adierazi zuten.

Aurtengo lasterketan Jon Gurutz Maiza presoaren gertukoek jantzi zuten lehenengo zenbakia zeraman dortsala. Lannemezango espetxean dagoen Gurutz ere larriki gaixorik dauden presoan zerrendan dago. Maizarekin batera, gainontzeko preso sakandarren orimenaz eta presentziaz margotu zituzten dortsalak, ETAko kide izan ziren bost etxarriarrak eta Altsasuko zazpi gazteak.

LASTERBIDEAN! LASTER ETXEAN!

Hauek gogoratu dutenez, “laster helmugara iritsiko ginela pentsatu genuen duela zazpi urte Lasterbidean lehenbiziko edizioa burutu genuenean, baina

zoritxarrez arinketan darraigu, urrunketari bidezidorra topatu nahian. Eta lasterketa horren baitan, korrika egin dugun bitartean, ehunka senide eta gertuko espainiar eta frantziar errepi-deak zeharkatzen ari dira”.

Sakabanaketa eta urrunketaren ondorio latzenak jasan dituzten 16 senide eta lagunak gogora ekarri nahi izan zituzten egun berezi horretan eta sakabanaketak eraildako 16 senide eta lagunei eskaini zieten korrikalarien omenaldirik beroena! Arbizun eta Lakuntzan elkartasuna eta esperantzaren kolorea gorria izan zela ohartarazi zuten “Hamaika pauso ditu elkartasunak eta korrika aurrera goaz, herri gisa, premiazkoa delako benetako bakearen aldeko bideak irekita aurkitzea”.

Mobilizazioak

OTSAILAK 23

Errausketaren aurka

Antiguatik abiatu zen manifestazioa, “AdOstaSUNAri esan baietz” lemarekin pankarta buru zuela. 4.000 inguru pertsona batu ziren Donostiako erdigunean zehar; osasunari eta ingurugiroari lehentasuna emango dion adostasun bidea aldarrikatu zuten, hondakinen kudeaketan erraustegia ez den aukera badagoela argi utziz.

OTSAILAK 23

Loratze faxistaren aurka

Mila pertsonak burutu zuten Iruñean Faxismoaren aurka “Askatasunaren aldeko martxa”. Arratseko 17:30etan Udaletxe plazatik abiatu ziren “askatasuna, demokrazia, elkartasuna eta justizia soziala defendatzeko”. Herritar mugimenduko ekintzaileak Nafarroako banderarekin aurrean; jarraian deitzaileen sektoretako ordezkariak pankartarik gabe baina askatasunaren, feminismoaren, langileen, LGTBI komunitatearen, migratzaileen eta pentsionisten mezuekin.

MARTXOAK 3

Oroimenak bizirik jarraitzen du

1976an Poliziak hil zituen bost langileei Gasteizko Zaramaga auzoan urtero legez egin zien omenaldia euskal langileriak. “Ahanztura nahi zuten, baina ez dute lortu. Oroimenak bizirik dirau”, martxoaren 3ko sarraskiaren 43. urteurrenean, 5.000 pertsona inguru batu ziren Gasteizko manifestaziora, memoria berpiztu eta inpunitatea ozen gaitzeste-

ko. ELA, LAB, ESK eta Steilasek bultzatutako ekitaldian, oraingo gazteei egin zieten erreferentzia. Aiztogile kaletik arratsaldeko 5etan abiatuta, Gazte Blokea Zaramagara iritsi zenean, “Batzuk ez genuen bizi izan 1976ko martxoaren 3a, baina memoria kolektiboari esker ezagutu dugu” adierazi zuten.



MARTXOAK 2

Espoliazioari aurre egiteko

GARA eta bere inguruko proiektu komunikatibo guztia babesteko Donostiako Kurasaalean 350 pertsona baino gehiago bildu ziren. Garako arduradunek adierazi zuten, egunkariak “kolpe handia jaso du”, baina “etorkizuna” duela segurtatu zuten. “Ez gaude hiltzorian, eta etorkizuna proiektatu nahi dugu”, gaineratu zuten bildutakoei desafio solidarioa planteatuz. Gararen aurkako espoliazioari aurre egiteko herritarrak proiektu komunikatibo hau sendotzearen arduradun aktiboak izango dira eta bai herri batzarren bidez, baita egunkariko arduradunekin zuzeneko harremanen bidez helburu zehatz baten atzetik joango dira: 10.000 harpidetza lortzea.

MARTXOAK 6

Antxo gogoan

Xabier Rey “Antxo”ren oroitzapen eta espetxe politikaren salaketa ekitaldia debekatu ondoren, gobernu espainiarraren Nafarroako delegazioak debekatu egin zuen bigarren instantzian memoriaren eta adierazpen askatasunaren alde deitutako manifestazioa ere. Iruñeko Donibane auzotarrek prentsurreko jendetsu batean salatu zuten egoera. Bigarren debekuak ez zuen ekidin, hala ere, Antxoren heriotzaren lehen urteurren honen ondorengo egunetan oroitzapen eta salaketak hedapen publikoa izatea.

MARTXOAK 8

Euskal Herriko kale eta plaza moreak

Aurten martxoaren 8an berriro historia- ren kapitulu berri bat idatzi zuten Euskal Herriko emakumeek. Euskal Herriko kaleetara milaka eta milaka emakume atera ziren Euskal Herriko mugimendu feministak egindako deialdiari jarraituz. Greba feministak jarraipen handia izan zuen egitaratu zuten bost ardatzetan: zaintza, kontsumoa, emakume pentsionistak, ikasleak eta soldatapeko lana. Euskal Herriko hiri eta herrietako mobilizazioek utzitako irudiak izan ziren, kalitatez eta kantitatez, greba feministaren arrakastaren testimonio. Alde batetik, subjektu anitzak batu zirelako: talde feministak, etxeko langileen elkarteak, sindikatuak, emakume migratzaileen taldeak, baserritarrak, ikasle eta gazte taldeak... Zerbakiak ere ez ziren nolana- nahikoak izan eta Euskal Herri osoan

200 mobilizazio baino gehiago egin ziren. Ekimen eta mobilizazio guztiek iluntzeko manifestazioetan izan zuten une gorena, hamarnaka mila emakume bilduz. Baionan 500 emakume bildu ziren; Bilbon 30.000 goizean eta 50.000 baino gehiago arratsaldean; Iruñean 12.000 goizean eta 17.000 arratsaldean; Donostian 11.000 goizean eta 17.000 iluntzean; Gasteizen 10.000 goizean eta arratsaldean 25.000. Hala ere Euskal Herriko hiriburuetak mobilizazioetatik aparte ia beste 200.000 pertsonak hartu zituzten parte M8ko greba feministan, goiz eta arratsaldez herri eta eskualdetan egindako manifestazioetan... Herri askotan historia osoan ezagutu duten elkarretaratze, manifestazio edota mobilizazio jendetsuenak burutu ziren goizez, arratsaldez ala bietan. Bai, milaka eta milaka manifestari atera ziren kalera, baina, feministek esan zuten moduan, "Urrats handia eman dugu baina oraindik urrun gaude gure helburuetatik".



MARTXOAK 10 **Feminismoa korrika**

Urtero legez, bere 30. edizioan milaka emakume eta feministak zapatilak jantzi zituen Donostiako Lilatoian parte hartzeko. Martxoaren 8tik bi egunera, 6.200 emakume batu ziren Gipuzkoako hiriburuan aldarrikapen feminista berriro eramateko kaleetara.

MARTXOAK 15-16 **Klimaren aldeko greba**

Klimaren aldeko grebari erantzunez 1.400 ikasle mobilizatu ziren ostiralean Baionan; ikasle suediar batek deitu zuen mundu mailako greba. Friday for Future dinamikarekin bat eginez, lizeo guztietako ikasleak kalera atera ziren "klima aldaketarekin gizateria arriskuan" dela salatzeraz. Bilbo, Gasteiz eta Donostiako

greba eta mobilizazioen erantzuna Baionakoa baino askoz txikiagoa izan zen. Aldiz, martxoaren 16an, "Bizi!" plataformak antolatutako martxan 1.200 pertsona inguru elkartu ziren Angelun "Klima: solas ederrak utz, ekin!" lemapean.

MARTXOAK 24 **Altsasu gainezka**

Festa egun batez guardia zibil batzuekin gurutzatzeko zorigaitza izan zuten herriko gazteetako bakoitzari ezarritako zigorra (6 eta 13 urte artekoa) berretsiz Auzitegi Nazionaleko Helegite Salaren erabakiaren aurka protesta burutu zen. Altsasu eta herrirako sarrerak jendez gainezka bete zituen mobilizazio berri honek, duela urte pare bat gertatu zen moduan; epaiketa bezperetan Iruñean bildu zena baino jendetsuagoa izan zen manifestazioa. Gobernu Delegazioak 35.000 eta 50.000 artean kontatu zuen Altsasun bildutako jendetza, eta Altsasukoak Aske plataformak 60.000 inguruan. Atxilotuen gurasoek zeramaten pankarta manifestazio buruan, eta gazteak bizi ziren eta atxilotu zituzten kaleetan barna egin zuten ibilbidea. Espetxean daramatzaten egunekin kartel horiak zeuden ibilbidean. "Altsasukoak askatu!", "Alde hemendik, utzi bakean!" edota "Hau ez da Justizia" oihuak eten gabe entzun ziren mobilizazioan. "Funtsezko eskubi-deen urraketaurrean gaude: ustezko errugabetasuna, epaiketa justu eta inpartziala, defentsarako beharrezko bermeen eskubidea, askatasun eskubidea, zigorraren proportzionaltasuna..." esan zuten gurasoek ekitaldi bukaeran.



MARTXOAK 5-7 **Kartzela politikak osasuna kaltetzen du**

Aitzol Gogorzaren espetxealdi arindua- ren berri jakin eta Bilboko NI ZU BI

EZBEHARRAK

MARTXOAK 10 **Juankar hil da**

Juan Carlos Martinez Baztarrika preso ohi donostiarra hil zen 59 urte zituela. 1979n eta 1981etik 1986ra kartzelan egon zen. 1983an espetxeko osasun asistentziarik ezagatik zeharkako protagonista izan zen. Juankarrek hemiplejia progresiboa zuen, aurpegia, eskuin besoa eta hanka paralizatu zizkiona. 22 egun zeraman soinaren erdia paralizatuta, ez zioten egin adituena inolako azterketarik, eta espetxeak ukatu egin zion ospitalera eramateko eskaera. Puerto de Santa Mariako espetxeko osasun artatze eza salatu zuten presoek, eta ETak bertako medikua hil zuen.

MARTXOAK 15 **"Presi" joan da**

Jose Ramon Ibarluzea Zubialdea "Presi" Markina-Xemeingoa zen eta 65 urterekin hil da. 1982ko otsailaren 10ean atxilotuta 1984ra arte espetxean egon zen, Carabanchelen besteak beste. Agur eta ohore.

MARTXOAK 16 **Juanjo Rego zendu da**

Ebakuntza larri bat gainditu ezinean martxoaren 16an zendu zen Juan José Rego Vidal preso ohi donostiarra 79 urte zituela. 1962tik aurrera, espetxean edo erbestean egin zuen bere bizitza gehiena eta 1978an, 1981ean, 1988an eta azkenean, Mallorcan, 1995ean atxilotu zuten Rego. Jada 70 urte zituela, 2010. urtean askatu zuten espetxealdi arindua onartuz, garai hartan gaixorik ziren hainbat presori bezalaxe kontrol neurri zorrotzekin.

APIRILAK 27 **Agur Isidro**

Gaixotasun labur baina zital batek Isidro Murga Luzuriagaren bizitza bukatu zuen. Anaia Patxo eta Pablo Gorostiagarekin batera 18/98 sumarioan auziperatu zuten eta horren ondorioz zortzi urtez espetxeratu zuten Egin-en alde lan egiteagatik. Maiatzaren 2an Laudion elkartu ziren lagun eta hurkoak eta hantxe omen- du eta gogoratu zuten bere borroka ibilbidea eta konpromisoa.

LABURRAK**MARTXOAK 13**
Espetxeei buruzko eztabaida

EH Bilduk proposatuta osoko bilkura egin zen Eusko Legebiltzarrean EAEak eskumena jasotzen duenean espetxe kudeaketa zertan oinarritu eztabaidatzeko.

Madrilek ezarri eta Lakuak onartuta egutegian azken postuan dago gaia momentuz. PP ez beste talde guztiek onartu zuten Madrilek eskumena ematean eredu penitentiario berri bat abiatzea “espetxearen erabilpena laburtuz” eta gizabidean sakonduz.

MARTXOAK 21
Kinkea-saria Santurtzira

Aurtengo Kinkearen lehenbiziko promozioari dagokion zozketa burutu zen eta 20.000€ko sari nagusia Santurtzin saldutako 14.043 zenbakiarentzat izan zen.

APIRILAK 24
Gorazarreagatik deitua aske

Ahotsa.info medio digitaleko kide bati dei egin zion Auzitegi Nazional espainiarak, ustezko “terrorismoaren gorazarre” delituagatik; kargurik gabe aske geratu zen, Agoitzeko epaitegitik bideokonferentziaz aurkeztu ondoren.

Ahotsa.info argitaratutako zenbait berriren ondorioz izan zen zitazioa; berri horietan “euskar preso politiko” esaten zuen EPPKko kideez aritzean.

APIRILAK 27
Harrera-ren VIII. Asanblada

Bere zortzigarren biltzarra ospatu zuen Harrera Elkarteak, Elgetan, eta beste gauza batzuen artean 2018an eginiko lanaren balantzea eskaini zen. Harrerak 19 laguni lanpostua lortzen lagundu diela adierazi zuen, eta 35 lagunentzako diru laguntzak eman dituztela. Asanbladara agertu ziren ehunetik gora preso-ohi/bazkideren aurrean egin zuten balantzea.

ekimenaren ondoren, Sarek, Osasunaren Nazioarteko Eguna (apirilak 7) zela aprobetxatuz, larriki gaixo dauden euskal presoek gaia atera zuen kalera. Apirilaren 5ean Gipuzkoako Buruntzaldean manifestazioa egin zuten Hernaniko Gudarien plazatik abiatuta; Gernikan, Merkurio plazatik Kepa Arronategiren etxeratzearen alde giza katea; Ugaon Zolloko tunel ondoan Joseba Borderen etxeratzearen alde elkartu ziren; Apirilaren 7an, eguerdi ostean Uribe kostan Areetarantz Bizkaia Zubian elkarretaratu ziren eta, ibaiaren bestaldean, Portugalete aldean, ordu berean Ezkerraldea elkarretaratu zen; Ibon Iparragirrenen askatasunaren alde Ondarroan Zubizaharra bete zuten ordu bat lehenago. Bilbon, Etxebarrieta anaien plazatik abiatuta “Euskal presoak etxera” leloarekin manifestazio egin zuten,...

APIRILAK 4-14
KORRIKA
Garesetik Gasteizera

Euskararen aldeko lasterketan, apirilaren 4an Garesetik abiatu eta, hamaika egunez Euskal Herrian batetik bestera ibili ostean, apirilaren 14an Gasteizen bukatu zen 21. korrika. Lehen goizean dianekin esnatu zen Izarbeibarrako hiriburua, eta hainbat ekimenek alaitu zuten eguna herri bazkaria arte. Arratsaldeko bostetan korrikalari andanak ekin zion korrikari Erribera bidean. Sean Nafarroako hegoaldean jarraitu zuen Korrikak eta handik Zangotzaldera, Mairaga zeharkatu ostean. Hirugarren egunean Irunberrin abiatu zen Korrika eta Iruñerrian arratsaldean sartu zen zazpi orduz Iruñerriko kaleak igarotzeko.

Apirilaren 7an, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan barrena ibili zen Korrika eta Baionan arratsaldeko seiak inguruan egin zioten harrera. Astelehenean Gipuzkoan sartu zen lasterketa eta Irun eta Hondarribitik Nafarroa, Bortziriak, Baztan, Leitzaldea, Sakana... Seigarren egunean Araban sartu zen Lautadatik Mendialdera eta Kanpezutik Guardara bidea hartu zuen Nafarroatik, eguna Argantzunen amaitzeko. Apirilaren 10ean, Arabatik Bizkaira sartu zen Korrika eta hurrengo egunean Zorrotzatik sartu zen Korrika Bilbora. Bederatzigarrenan, Lea-Artibaitik Bizkaia atzean utziz, Gi-

puzkoan egin zioten harrera eta arratsaldean Donostia jo zuen jendetza artean. Apirilaren 13an Durangaldea eta Arratian zabalduko zen “KLIKA” mezua eta Hamaikagarren egunea Bizkaian eta Gipuzkoan ibili zen lekukoa Gasteizera iritsi aurretik. Lekukoak Garestik zekarren mezua, Andre Maria Zuriaren Plaza bete-betearen aurrean irakurri zen: “Mundu bat euskarak, mende erdia Euskara Batuak, eta ehunka mila bizitza eta gogo euskarak batuak”.

**APIRILAK 6**
Iñigo Cabacas gogoan

Maria Diaz de Haro kalean, bere gurasoek, lagunak eta ehunka jende gogoratu zuten berriro ere Iñigo Cabacasen kasuan justiziarik ez dela egin oraindik.

APIRILAK 13
30 urte aski da

“30 urte aski da” lelopean, Baiona eta Donibane Lohizune arteko hamar biribilgunetan elkarretaratzeak eginez, beren kartzelaldiaren 30. urtean sartu direla-eta, Ion Kepa eta Unai Parot, Jakes Esnal eta Xistor Haranbururen “egoera jasangaitza” salatu zuten Baigoazen deialdira batu ziren 250 herritarrek. Donibane-Lohizuneko tren geltokiaren aurreko biribilgunean 50 bat lagun bildu ziren kartzela zigorra luzea bete duten lau lapurtarren potretak erakusten zituztela.



APIRILAK 18 10 urte Jon Anza desagertu zela

2009ko apirilaren 18an Jonek Baionatik Okzitaniako Tolosara tren hartu zuen. Desagertu eta urte bat berantago, hango ospitaleko hilen atxikitze lekuan agertu zen bere gorpua. Nola hil zen? Nola egon zen bere gorputa kasik urte batez desagerturik? Sekulan ez da argitu zer gertatu zitzaion Jon Anzari, eta argitzeko auzibide guziak itxiak dira. Gerra ziklinaren biktima bat izan zela dudarik ez dute hurbilekoek eta Ezker abertzaleak. Jon Anzari omenaldi ekitaldia egin zioten ehunka pertsonak Ziburuko pilota plazan arratsaldeko zazpitan "Izan direlako gira, girelako izango dira" lemapean.

APIRILAK 19 "Ez gaude preso, baina zuekin gaude"

Apirilaren 17an, preso politikoen nazioarteko egunean, ekitaldia antolatzen zuten Kalera ekimenak Gazte Topagunearen eszenarioan. Lemoako frontoia lepo bete zen euskal preso politikoen askatasuna aldarrikatzeko. "Ez gaude preso, baina zuekin gaude" margotu zuten mural batean duela gutxi askatutako Mikel Orbegozo marrazkilaria, Kepa Etxeberria, German Urizar eta Maite Aranalde euskal preso politikoko ohiek. Ernaiko bozeramaile Lur Albizuk besarkada bidali nahi izan zien "ahaztu nahiko genukeen zerrenda" osatzen duten euskal preso politikoei, "Euskal Herriera bueltatu ezinean dabilzan guztiei". Beraren atzetik Nora Cortisaneek, Argentinako Mujeres de Plaza de Mayo kideak, hartu zuten hitza oholtzan.

Ondoren, mural baten gainean preso ohiek 'Ez gaude preso, baina zuekin gaude' idatzi zuten, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) gazteei bideratutako gutuna irakurri bitartean. "Pozgarria da guretzat belaunaldi berriekin bat egitea etorkizunari begiratzen diogunean; indarrak suspertzen dizkigu zuen grinak, geroaz eta gure herriaren etorkizunaz kezkatzen zaretela ikusteak. Ilusioz betetzen gaitu ondoren zatozten belaunaldiak kideok lekukoa hartzeko prest zaudetela ikusteak", adierazi zuen EPPK-

-k. "Militante gisa zuekin gaude, gurekin zaudete, eta zuen eta gure belaunaldien artean elkarlana egiteko ardura dagokigu zuei eta guri", gaineratuz. Amaiera emateko, eusko gudariak abestu zuten jendez lepo zegoen frontoian, irrintzi eta "euskal presoak kalera, amnistia osoa" oihuen artean.



APIRILAK 19-22 Gazte Topagunea

8.000 lagunetik gora pasa ziren asteburuan Lemoan Ernaik eta Aitzinak burututako Gazte Topagunetik. Aldarrikapenak eta jaiak bat egin zuten Arratiako udalerrian. "Bulkada berrien garaia da" dinamika jarri zuten martxan duela ia urtebete, eta helburu bezala belaunaldi berriak eta haien sortzailetasun eta indar guztia borrokara batzea. Boluntarioen lana azpimarratu behar da, 2.000 txanda baino gehiago egin dituelako jendeak. Milaka gaztek eman zioten hasiera 19ko eguerdian Ernai eta Aitzinak deitutako ekitaldiari. 40 urte igaro dira Ezker Abertzaleko lehenen Gazte Antolakundea sortu zenetik eta horren harira elkartu ziren. Aste Santuko egunotan, Mahai-inguru eta musika kontzertuak izan ziren lau eguneko topagunean.

Gazte Topagunean Gazte Sortzaileen Plaza egon zen eta era askotako ekimen kulturalak bertan; musikagintza, bertso-larritza, idazketa, marrazkigintza... izan ziren. Erakusketa espazioa, eztabaida gunea eta hausnarketarako eremua ere prestatu zituzten. Irlanda, Norvegia, Hego Afrika, Kurdistán, Brasil, Txile, Argentina, Uruguai, Portugal, Galizia, Katalunia, Korsika, Sizilia, Asturias edota Gaztelako gazte antolakundeak ere etorri ziren Topagunera. Biharamunean, Nazioarteko preso politikoen harira, euskal presoekin elkartzuna adierazteko

jendetza bildu zen Lemoako frontoian. Hurrengo egunean Gazte Topagunearen ekitaldi zentratean Ernai eta Aitzina gazte erakundeetako kideek "Gazte olatu emantzipatzailea" altxatzera eta hauteskunde "batailari" begira, bozka EH Bilduri ematera dei egin zuten. Aurretik, 1990. urteetako gazte errepresaliatuen memoria berreskuratu zuen Gazte Topaguneak gaurko gazteen gurasoen eskutik, argi utziz borrokak eta ideologiak eskuz esku doazela etorkizunerako proiektu gisa.



APIRILAK 21 Aberri Eguna

Aberri Eguna kari, mila bat lagun Donibane Garaziko karrketan gandi ibili ondoren, egun osoko animazioak abiatu ziren Merkatu Estalian. "Hemen eraiki, hemen erabaki" egitaritzeko engaiamendua berretsi zuten frantses gobernuaren mespretxuaren aurrean. EH Bilduk, berriz, Iruñean antolatu zuen Aberri Eguna. Milaka jende batu zen Autobusen Geltokian abiatuta Takoneran amaitu zen manifestaldira. "Erabaki" lemarekin pankarta zeramaten hautesgaiek manifestazio buruan; amaiera ekitaldian ERC eta BNGko ordezkariak eta Arnaldo Otegi hitz hartu zuten: "Hilaren 28an ezkerreko independentistak miloi bat boto lortu behar dugu Estatu espainiarrean eskuinari aurre egiteko, autodeterminazioa eta preso politikoen askatasuna aldarrikatzeko...". Oriol Junquerasek Soto del Realetik igorritako eskutitza irakurri zuen Marta Vilaltak.

Altsasuko gazte auzipetuetako baten ama eta Nafarroako Hautagai Bel Pozuetak, berriz, Trantsizio deituan gizarte nafarri ezarritako markoa eta Madriletik nafar gobernuari ezarritako mugak salatu zituen. Ekitaldian gogoratu zen irailetik

aurrera 47 euskal herritarri makroepaiketara egingo dietela Auzitegi Nazionalan.



MAIATZAK 1 **Maiatzaren lehena**

Euskal sindikatuek Langilearen Eguna ospatu zuten Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean eta Baionan egindako manifestazioekin. ELA eta LAB sindikatu abertzaleek bakoitzak berea egin zuten. ELAk Bilbon eta Iruñean manifestazio bana eginez "Bizitza da lehena" lelopean, eta LABek ere bai. Batetik Iruñean eta bestetik Baionan beste batzuekin batera. Aurten lehen aldiz CGT eta LABek eta hainbat herri mugimenduk deialdi bateratua egin zuten justizia soziala eta ekologikoaren aldarrikapenak uztartuz, eta 6.500 lagun inguru bildu ziren manifestazioan, Euskal Herriko mobilizazio jendetsuenean. Bestetik, Iruñean LABek egun osoko egitaraua zuen "Euskal Herriak erabaki. Kapitala hautsi, bizitzari eutsi" lelopean. Iruñeko manifestazioa hasi baino lehen hiriko hainbat tokitatik ateratako bost zutabek bat egin zuten Gaztelu plazan, besteak beste, gazteek, pentsiodunek, migratzaileek eta feministek bat egin zuten LABen manifestazioarekin.

MAIATZAK 4-5 **Besarkada anitzak**

Iruñea Harrera Hiriak ehunka pertsona eraman zituen besarkada jendetsu batera hilaren lauko goizean Iruñeko Sarasate Pasealekuan. Hurrengo egunean Durangon jarraipena izan zuten ekimenak; Landako gunean besarkada kolektibo hunkigarria burutuz eman zioten amaiera Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Caravana Abriendo Fronteras-ek pertsona migratzaileen alde eta Europa osoan sailak hartzen ari den neofaxismoaren aurka deitutako mobilizazioari.

MAIATZAK 2-7 **Txus Martinek jasandako tratua salatzeke**

Elkarretaratze batek Txus Martinenganako krudeltasuna amaitzea eskatu zion Lakuako Gobernuari hilaren 2an Bilboko delegazioaren aurrean. Segurtasun eta Osasun saileri bideratua zegoen eskaera, Basurtoko Ospitalean zegoen bitartean ezartzen zioten muturreko polizia kontrolak jasanarazten zion "sufirimendu gizagabe eta doakoa" amai zedin. Egun batzuk geroago errepikatu egin zuten elkarretaratzea, eta 7an Lakuako Gobernuak Bilbon duen egoitzaren aurrean elkarretaratzea egin zuen Sare Herritarrak Txus Martinen eta berak bezala gaixotasun larriak dituzten gainerako presoek "berehalako etxeratzea" aldarrikatzeko.



MAIATZAK 13-15 **Kotxe-istripuaren salaketa**

Oier Urrutia euskal preso politikoaren lagun batek kotxe-istripua jasan zuen Logroñoko espetxera bisita egitera zihoanean. Etxerat elkarteak istripu berri hau -dispertsioak eragindako urteko bostgarren- salatzeke elkarretaratzeak deitu zituen Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan: Iruñean 13an Gobernu Zibilaren Aurrean; Bilbon 14an Arriaga Plazan eta Donostian eta Gasteizen 15ean Bulebarrean eta Ama Zuria Enparantzian.

MAIATZAK 16 **Aski da**

Josu Urrutikoetxearen atxiloketa salatzeke "bakearen eta askatasunaren alde" kalera ateratzeko deia egin zuten Sortuk, EH Baik eta LABek. Arratsaldean Josuren askatasuna aldarrikatu eta bakearen aldeko "apustu irmoa" erakusteko elkarretaratzeak egin zituzten Euskal Herriko hainbat txoko eta plazetan.

EKAINAK 7-8 **Giza katea Biarritzen**

Hilaren 7an Biarritzeko Bellavue Kasinoan burutu zen, Bake Bideak eta Bakearen Artisauak antolatuta, "Gure elkarbizitza eraikitzeke topaketa". Bidasoaren alde bietako hautetsiak eta politika eta gizarte zibileko ordezkariak bildu ziren bertara. Besteak beste Axun Lasa, Iñaki Garcia, Michel Camdessus NDFko lehendakari ohia eta Christiane Taubira frantziar Justizia ministra izanak hitza hartu zuten.

Hurrengo egunean 3.000 pertsona bildu ziren Bake Bidea eta Bake Artisauen deiarri erantzunez Palais hoteletik Ama Birjinaren harkaitzera bitartean giza katea egitera. Joera guztietako politikariak, sindikatu, kulturgintza, kirol eta elkarteetako ordezkariak eta Euskal Herri osotik hurbildutako jendeak osatu zuten 1.300 metroko giza katea, eta bake prozesuaren baitan euskal presoek egoerari heltzeko momentua orain dela aldarrikatu zuten.



EKAINAK 9 **Espoliazioari aurre eginez**

Egineen gizarte-segurantza zorra Garari erantsi ziotela salatu bezain bizkor hasi ziren musikariak eta musikari taldeak beren elkartasuna eskaintzen. Sei hilabete geroago, igande honetan gauzatu zen Gara/Naizen aldeko jaialdi erraldoia.

Aurretik, Anoetako belodromorako sarrerak erabat agortu ondoren, leku handiagoa bilatu behar izan zen. Illunbe plaza eta inguruak txiki geratu ziren 30 musika talderekin 11 orduz gozatzerantz bertaratu ziren 10.000 lagunentzat. 800 boluntario aritu ziren jaialdi erraldoi honetan laguntzen, espoliazioari aurre egiteko elkartasun uholdea bermatuz.

Garai berrira egokituz

J oan den martxoaren 23an Sare Herritarrak bere IV. Batzar Orokorra burutu zuen arduradun nagusiekin eta Sareko taldeak dauden hainbat herritako ordezkariekin. Sareko kideek, eztabaidarako tartea izan zuten Etxarriko Kultur Etxean egin zuten Batzarrean eta aurrera begirako lan-ildo eta dinamikak definitu eta eztabaidatu zituzten. Bertan, euskal presoek oraindik bizi duten problematikaren inguruan eta bereziki gizarte gisa aurrera egin ahal izateko “askatu beharreko” korapilo diren eta sufrimendua sortzen jarraitzen duten oztopo eta salbuespen neurriei buruz aritu ziren; zigoren batuketa, larriki gaixo diren presoek urgentziazko egoera, motxiladun haurren dinamika, presoek espetxe sisteman aurrera egin ahal izateko gradu aldaketen inguruko lanketa beharra, urruntze politika, emakume presoek urruntze eta bakartze egoera, eta preso eta senide adinduen auzi gero eta nabariagoa izan ziren, besteak beste, batzar honetan landu eta aurrera begira ezarri zituzten lan-ildoak.

Urtero legez, Batzar Orokorra urtarrileko manifestazio jendetsuaren ostean antolatuta zuten, urteko balorazioa egin eta kurso berrirako lan ildoak zehazteko. Aurtengo batzarrak ordeza kutsu berezia hartu zuen; batetik, ETĀren desagerpenaren ostean zabalduko “garai berri baten aurrean kokatzen garelako, aukera berriak eskaini dizkiguna eta oraindik ere eskaintzeko dituen”. Zentzu honetan, duela hilabete

batzuetatik hona elkarbizitzaren eta bakearen eraikuntzaren bidean urratsak ematen hasiak direla nabarmendu zuten eta bide horretan, bai maila instituzionalean, politikoan, sindikalean zein sozialean lortutako adostasun, babes eta konpromiso berriak nabarmendu zituzten.

SAREko kideek, orain artean iritsi ez diren horiengana heltzeko eta hauen konpromisoa eta aktibazioa bilatzeko lan egiten jarraitu behar dutela ziurtatu zuten, “presoen auzia guztion ardurara izanik”, aurrera begira ere jendarte anitz eta zabalaren aktibazioa izanez helburu, eta horretarako Sareren diskurtsoaren egokitzapenez ere mintzatu ziren. Elkarbizitzarako eta bakera sortutako aukera berriak ardatz hartuta, presoek eta espetxeen auziari aterabidea emateko gizarte osoaren sentsibilizazioa, ardura eta aktibazioa izango dira Sareren lanaren oinarri.

Bestetik, Sare Herritarrak sortu zenetik 5. urtea aurtengo udan beteko dela gogorarazi zuten batzarrean, eta, urteotako lanaren erreposazioa egiteaz gain, emaniko aurrera pausuak eta lortutako adostasunak balioan jarri eta Sarek gaur inoiz baino indar gehiagorekin lanean jarraitzeko beharra azpimarratu zuten; “sufrimendu oro sortzea eten eta jendarte honek elkarrekin bakean bizitzeko duen nahia gauzatu dadin presoek auziari aterabidea ematea ezinbestekoa da” azpimarratu eta horretan buru-belarri jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.

Preso guztiak Zaballara, azkar eta arduraz ekar ditzatela

Etxerat-eko XVIII batzarra

“Espainiako Gobernuak Zaballara ekarri behar ditu preso guztiak, eta urrats hori azkar eta arduraz egin dezala eskatzen diogu” adierazi zuen Etxerat Elkarteak Gasteizko Europa Biltzar Jauregian ospatu zuen XVIII. Batzar Nazionalean



“Gure Batzar Nazionala dela-eta Gasteizen bilduta, aditzera ematen dugu salbuespenezko espetxe politiken desaktibazioa lortzea izango dela gure lanaren ardatz nagusia datozen hilabeteetan. Horretarako, informazioa, testigantza eta salaketa erabiliko ditugu tresna gisa, urrunketari eta preso gaixoek pairatzen duten muturreko egoerari lehentasuna emanez.

Urtebete igaro da euskal preso politikoen senide eta lagunok Tolosan egindako Batzar Nazionalean bildu ginenetik, bederatzi hilabete Espainiako gobernu berriak espetxe politikaren aldaketa iragarri zuenetik, eta, oraindik ere, balantzaren alde batek hartzen du pisu guztia. Esan beharrik ez dago gure eta espetxean nahiz erbestean ditugun senideen sufrimenduaz ari garela.

Bitarte honetan, euskal preso bat hil da espetxean; gaixotasun larriak dituzten preso ia guztiek lehen graduan eta espetxe urrunetan jarraitzen dute, tratamendu egokia jasotzeko



aukerarik gabe; Frantziako Estatuan bizi osoko espetxe zigorra ezarri zitzairen lau presoetako hiruk kartzelan jarraitzen dute, baldintzapeko askatasuna lortzeko arauak betetzen dituzten arren.

24 senidek istripuak izan dituzte errepidean, urrunketak darraren arriskuaren ondorioz, eta nabarmendu beharra dago senide horien artean haurtxo bat zegoela. Dispersioak eragin dituen hildakoen aitortza sozial eta instituzionala bultzatzeko lan egingo du Etxeratek ikasturte honetan.

Espainiako Gobernuak Zaballara ekarri behar ditu preso guztiak, eta urrats hori azkar eta arduraz egin dezala eskatzen diogu, orain dela 30 urte kontrakoa egiteko erakutsi zuen azkartasun eta ardura berberarekin. Izan ere, 600 euskal preso baino gehiago sakabanatu eta urrundu zituen bi hilabeteko epean, penintsulako, Balearretako, Kanarietako, Ceutako eta Melillako espetxeetara bidaliz. Halaber,

Etxeratek nabarmendu nahi du premiazkoa dela erbestera-tuek eta deportatuek pairatzen duten egoera konpontzea, etxera itzul daitezzen.

Espainiako Gobernuak 24 preso (%8,5) lekualdatu ditu Euskal Herritik hurbil dauden kartzeletara. Teknikoki, hurbildu egin ditu, baina urrats hori ez da inondik ere nahikoa. Oraindik ere, 500 eta 2.000 kilometro bitarteko bidaiak egin behar ditugu astero, gure bizia arriskuan jarritz. Ez dago euskal presoak Zaballara ekartzeara eragozten duen inolako aitzakiarik, ez legediaren aldetik, ez baldintza materialei dagokienez.

Herri honen etorkizunarekikoa da gure konpromisoa, absentsia gehiagorik gabe eta min gehiagorik gabe. Gure eskua luzatuta dago gatazka politikoaren konponbidean laguntzeko, elkarbizitza eraikitzeko eta sufrimendua aitortzeko, sekula berriz errepika ez dadin. Etxean eta bizirik nahi ditugu!”



1979

40 años después, hablemos de terrorismo

La “guerra sucia”, una de las acepciones amables para mencionar al terrorismo de estado, nació en el franquismo y tuvo un especial protagonismo durante el régimen del 78, en lo que se dieron en llamar la primera y la segunda fase de la Reforma política, el postfranquismo y el antes y el después del golpe de estado y del “cambio socialista”

Al franquista Fraga Iribarne le sucedió el no menos franquista Rodolfo Martín Villa que dio inicio a los ministros de interior de la UCD. A éste le sustituiría Antonio Ibáñez Freire entre abril del 79 y mayo del 80 y a este último, Juan José Rosón hasta diciembre de 1982. Los ministros de la cosa policial se sucederán unos a otros pero la guerra sucia no cesó desde que se vio venir la muerte de Franco hasta la inauguración oficial de la democracia con las lecciones de 1977, y aún hasta diciembre de 1982, momento en que Felipe González toma posesión del gobierno. Luego, durante seis años y hasta julio de 1988 será José Barrionuevo quien coja las riendas del Ministerio del Interior durante el pleno apogeo del GAL.

Aunque no hay un comienzo definido de la actividad del Terrorismo de Estado, ya durante el franquismo, en Hego Euskal Herria, los ataques combinados de agentes policiales y militantes falangistas fueron reivindicados por una organización genérica llamada “Guerrilleros de Cristo Rey”. Las otras acciones armadas o realizadas con explosivos se les atribuyeron directamente grupos paramilitares o parapoliciales. En mayo de 1969, un capellán de Eibar recibió un paquete bomba, en junio de 1971, un trabajador de una empresa en huelga fue ametrallado en Iruñea, en 1973 la colocación de bombas firmadas por el terrorismo de Estado estaba ya extendida por Hego Euskal Herria y en agosto de 1974, un grupo mercenario colocó hasta seis bombas en Oñati en una sola noche.

Sin embargo, en las postrimerías del Franquismo y después de la muerte del dictador, equipos de sicarios se dejaron sentir con fuerza durante todo el tiempo en que se dilucidaba la batalla política entre Reforma y Ruptura democrática. Durante toda la Transición política, el terrorismo de estado cobró formas diversas haciéndose especialmente sangriento en Ipar Euskal Herria aunque en la Euskal Herria peninsular también se sufrieran la crudeza de sus acciones.

En 1974 son los servicios de inteligencia del régimen quienes se encargan de preparar y dirigir los grupos anti-ETA que comienzan a operar ya en 1975. Para ello, reclutan mercenarios ideológicamente afines a la dictadura entre antiguos miembros de la OAS (unionistas franceses de Argelia), fascistas italianos, criminales argentinos de la Triple A, junto hampones de los bajos fondos marseleses y bordeleses.

Siendo Carlos Arias Navarro el presidente del Gobierno, el 23 de abril de 1975, daba comienzo oficialmente la guerra sucia contra los refugiados vascos con el estallido de la primera bomba en la librería Mugalde de Hendaia. Dos meses después, tendría lugar el primer atentado directamente dirigido a acabar con la vida de un refugiado vasco, el 5 de junio, todavía varios meses antes de morir el dictador, estallaba en Biarritz una bomba bajo el coche de José Antonio Urrutikoe-txea. En los meses y año siguientes, otra docena de bombas estallaban contra librerías y comercios y hasta siete atentados con bomba fueron dirigidos contra refugiados como el que el 21 de marzo de 1976 que iba dirigido con Tomás Perez Revilla y dejó gravemente herida su compañera Feli Ziluaga.

A la muerte del dictador el terrorismo de estado está plenamente asentado y en 1976 todavía siguen los franquistas al frente del Gobierno monárquico, Arias Navarro como presidente y Fraga Iribarne como ministro de la Gobernación (Interior). Es entonces cuando se castiga a los otros dos enemigos del régimen además del independentismo vasco, la clase obrera y el Carlismo. En la primavera de 1976 tienen lugar la masacre obrera de Gasteiz a cargo de la policía y seguidamente los sucesos de Montejuorra vinculados a la guerra sucia y parapolicial. Tras ambos hechos, en julio de 1976, el rey sustituye al Gobierno de Arias Navarro colocando en su lugar a dos jóvenes procuradores de la dictadura franquista y promesas del Movimiento Nacional, Adolfo Suárez al frente del estado y Rodolfo Martín Villa al frente de la policía.

Ese mismo mes de julio, el día 23, desaparecía Eduardo Moreno Bergaretxe "Pertur" en una evidente operación de guerra sucia anti-terrorista y para mediados de 1977, cuando se celebran las primeras elecciones generales, el balance de víctimas desde abril de 1975 es ya de cuatro muertos y tres heridos. A partir de ahí y bajo el sin fin de siglas (Triple A, GAE, ATE, BVE,...) en que se ampara la guerra sucia, la actividad criminal en la sombra cuyos hilos son movidos por los servicios de inteligencia españoles se reactiva en 1978 y

1979 se convertirá en el año en que el Batallón Vasco Español (BVE) salta al primer plano y se cobra el principal protagonismo. La sucesión de muertes comenzó en julio de 1978, cuando en Donibane Lohitzune ametrallan el coche de Juan José Etxabe que resultó gravemente herido mientras que su compañera Agurtzane Arregi Letamendi resultaba muerta. Seis meses después, en Angelu, una bomba colocada bajo su coche acababa con la vida de José Miguel Beñarán Ordeñana "Argala". Esta reactivación de la guerra sucia en tiempos del Consejo General Vasco, el preautonómico vasco y el proceso de aprobación de la Constitución española, dio inicio a una ininterrumpida ola de sangre y atentados políticos contra los refugiados vascos en un momento político crucial.

En enero de 1979 es José Manuel Pagoaga Gallastegi "Peixoto" quien queda gravemente herido tras sufrir un atentado y al inicio del verano, el 25 de junio, después de ser ametrallado en Baiona, muere Enrique Gómez Álvarez, "Korta"; el 2 de agosto en otro ametrallamiento resultará muerto Juan José Lopategi Carrasco, "Pantu" (Ángel Iturbe y Arantxa Sasiain resultarían heridos); el 13 de septiembre otro nuevo ametrallamiento en Biarritz deja gravemente herido a Justo Elizarán Sarasola, "Periko", que morirá en el hospital el 5 de octubre.

Entre tanto, en mayo de 1979, el semanario Blanco y Negro, publicó un reportaje en el que acusaba al erandiotarra y refugiado antifascista Francisco Javier Martín Eizagirre de ser el responsable de una red internacional terrorista. Tres días después del asesinato de "Korta" en Baiona, el 28 de junio de 1979, el que fuera primer presidente del PCE(r) y refugiado en París era asesinado en un restaurante por Jean Pierre Cherid y Mohamed Talbi. Al día siguientes, tras desplazarse hasta Choisy-le-Roi, a 10 km de París, los mismos mercenarios darán muerte a Aurelio Fernández Cario a quien la policía española vinculaba con los GRAPO. Estas acciones serían reivindicadas por el BVE.

En la primavera de 1979 se habían repetido las elecciones generales y, sobre todo, se celebrarían las primeras elecciones municipales y a Juntas Generales y Parlamento navarro, que debían ser el embrión de las futuras Autonomías separadas vasca y navarra. En aquellos comicios la coalición abertzale Herri Batasuna, que no había participado en las elecciones generales de 1977 y abanderaba las posiciones de ruptura democrática, irrumpió sorpresivamente en el escenario político con 172.000 votos y aupándose como tercera fuerza política vasca tras PNV y PSOE. Si el terrorismo de estado se había hecho cotidiano en la Euskal Herria continental, regresará a Hegoalde poco antes de aprobarse el Estatuto vasco. El 28 de septiembre de 1979, en Astigarraga, se cobraría la primera muerte de un político elegido democráticamente. Tomas Alba Irazusta, que cinco meses antes había resultado elegido concejal de Donostia en la candidatura independentista de Herri Batasuna, fue la víctima elegida y sentenciada.

En 1980 se sucederán los atentados mortales en el triángulo de la muerte (Andoain, Hernani, Orereta) del sur vasco, incluso saltarán el océano hasta llegar a Venezuela, tendrá lugar el ametrallamiento del Bar Hendayais y otra nueva desaparición, la del refugiado político vasco José María Etxebarria Alvarez “Naparra” que también será asumida por el Batallón Vasco Español. Y, si llegó a producirse una aparente disminución de los atentados a partir de 1981 tras la dimisión de Adolfo Suárez como presidente del Gobierno y el golpe de estado del 23 de Febrero, ese aparente silencio no será más que el preludio de la renovación del terrorismo de estado que saltará a escena en 1983 con la irrupción de los GAL del PSOE y dos nuevas desapariciones.

Cuatro décadas después de la gran ofensiva parapolicial del 79, toca hablar de terrorismo de estado y de todas las actividades violentas nunca reconocidas por el Estado pero auspiciadas por él. Hoy, 40 años después de aquel BVE dirigido desde las tripas del Estado, sigue siendo oportuno hablar de terrorismo, realizando otros balances de sufrimiento, aportando datos de crímenes nunca investigados y recordando efemérides de esas otras víctimas. El terrorismo de estado en su conjunto se acabó cobrando la vida de 83 personas, muchas de ellas refugiados políticos. Sin embargo, esas 83 víctimas mortales no son más una pequeña parte (10%) de la guerra sucia. En conjunto, 855 personas sufrieron en Euskal Herria los ataques de grupos para-policiales y casi 600 propiedades y negocios fueron saoteados por ataques para-militares patrocinados y protegidos por el Estado. El balance total del terrorismo de estado arroja cifras alarmantes ya que, solamente en Euskal Herria, se pueden documentar unos 1.500 atentados.

Sin embargo, pese a lo abultado de las cifras, uno de los aspectos más notorios de la guerra sucia ha sido la impunidad,

la ausencia de encausados y de condenas para quienes promovieron o ejercieron semejante actividad. No en vano, los estados han respaldado a los funcionarios que han participado en las actividades encubiertas y el paradigma de este apoyo fueron los condenados por los secuestros de Segundo Marey, Joxean Lasa y Josi Zabala, estos dos últimos muertos tras ser torturados, que fueron indultados. La mayoría de esos 1.500 atentados contra personas y propiedades quedaron impunes, casi siempre con el apoyo policial, inhibición investigadora, complicidad de jueces, connivencia de gobernantes y con la construcción posterior de un relato falso e incluso apologetico de la actividad encubierta del Estado.

Aquí, es conveniente recordar como lo hacía el pasado año un informe del Foro Social Permanente, que el 61'4% de los crímenes de la guerra sucia siguen impunes. Qué, efectivamente, una gran mayoría de los crímenes de ese Batallón Vasco Español (BVE) de tiempos de UCD y de los crímenes de los Grupos Anti-terroristas de Liberación (GAL) de los tiempos del PSOE, se quedaron sin respuesta judicial, sin investigación, esclarecimiento ni derecho a la verdad de las víctimas. Una mayoría de las 83 muertes se quedaron sin resarcimiento ni compensación alguna y ni siquiera el reconocimiento de las víctimas.

Esa mayoría de atentados sin resolver se corresponden con los llevados a cabo en Ipar Euskal Herria contra refugiados políticos vascos que fueron las víctimas del más sanguinario de los victimarios, el Estado español. Atentados, de una época u otra, orquestados y dirigidos indistintamente por los aparatos del estado franquista o del estados “de derecho” y que difícilmente pueden ser achacables, como quiere el relato oficial, a ese conglomerado genérico calificado como “extrema derecha”.



Abril de 1975, bomba contra librería Mugalde en Hendaia, primer atentado de la guerra sucia.

La guerra sucia anterior a los GAL

- En cualquier circunstancia se considera que la forma de acción más aconsejable es la desaparición por secuestro.

Papeles del CESID sobre la guerra sucia contra ETA.

Las autoridades españolas siempre se empeñaron en achacar los atentados de guerra sucia a "incontrolados" de ultraderecha y en negar rotundamente toda responsabilidad en aquellos crímenes. Y lo siguieron negando incluso cuando las pruebas que mostraban todo lo contrario no dejaron resquicio alguno a la duda debido a las increíbles chapuzas que cometieron al organizar los atentados reivindicados usando las siglas GAL.

Fue a finales de 1983 cuando empezaron a emplear aquellas siglas y antes se sirvieron de otras muchas: Anti-Terrorismo ETA (ATE), Batallón Vasco-Español (BVE), Triple A, Grupos Armados Españoles (GAE)... Además, muchos atentados cometidos en aquella época ni siquiera los reivindicaron. Por ejemplo, el 21 de septiembre de 1980 cuatro personas resultaron heridas de bala en Durango, dos jóvenes secuestrados y apaleados en Etxebarri y por fortuna nadie resultó herido en otro ametrallamiento en Andoain. Todo el mismo día, sin que mediara reivindicación alguna.

Según el diario Deia, de 1975 a 1980 se produjeron más de 500 atentados de guerra sucia, la inmensa mayoría de los cuales no han sido jamás esclarecidos. Entre ellos, dos en los que se utilizaron potentes cargas explosivas que causaron la muerte de siete personas sin significación política alguna.

El primero, cometido el 20 de enero de 1980, estaba dirigido contra el bar Aldana de Alonsotegi donde cuatro personas resultaron muertas y diez heridas de gravedad. La sigla que emplearon esa vez para reivindicar el atentado fue la de los GAE y el caso fue sobreesido cuando no había transcurrido ni año y medio desde que se produjo el atentado.

El 23 de julio de 1980 otro atentado con explosivos provocó tres nuevas víctimas mortales, una de las cuales se encontraba en avanzado estado de gestación. El objetivo, una guardería de Bilbo dirigida por la compañera de un concejal de Herri Batasuna. Lo reivindicaron usando la sigla de la Triple A, y la investigación policial volvió a brillar por su ausencia.

Otro tanto sucedió con la gran mayoría de los atentados cometidos a finales de los años setenta y principios de los ochenta y en los que las siglas utilizadas fueron ATE, BVE, AAA, GAE y similares. La gran mayoría quedó impune y, en todo caso, nunca se investigaron hasta sus últimas consecuencias. En especial, los realizados en Iparralde donde hubo tres campañas de guerra sucia contra la comunidad de refugiados políticos vascos.

En efecto, antes de la campaña de los GAL, iniciada en octubre de 1983, hubo otras dos, la primera de las cuales se desarrolló entre abril de 1975 y octubre de 1976. Una campaña que se saldó con numerosos atentados con explosivos, varios intentos de asesinato frustrados, contra Txomin Iturbe, Josu Urrutikoetxea, Tomás Pérez Revilla..., y la desaparición del dirigente de ETA pm Eduardo Moreno Bergaretxe "Pertur".

Tras ese año y medio repleto de atentados en Iparralde, no hubo ni tan siquiera uno hasta julio de 1978. Un periodo de más de año y medio sin atentados que coincidió con la drástica disminución de los casos de torturas de militantes políticos vascos. Seguramente, debido a la convulsa situación política, que parece llevó a las autoridades españolas a dar las pertinentes órdenes al respecto a los torturadores y a los ejecutores de la guerra sucia.



1975, coche bomba destinado a matar a Josu Urrutikoetxea.

Eso sí, el aparato represor de la dictadura permaneció intacto y pudieron volver a las andadas en cuanto las autoridades lo consideraron necesario. Fue entonces cuando asesinaron en Donibane Lohizune a Agurtzane Arregi, el 2 de julio de 1978. Su marido, el histórico militante de ETA Juanjo Etxabe, recibió una veintena de balas, pero salvó la vida.

Aquel atentado dio inicio a la segunda campaña de la guerra sucia en Iparralde, que duró hasta marzo de 1981 y fue mucho más cruenta que la anterior: ocho muertos y otro desaparecido, Joxe Miguel Etxeberria "Naparra", dirigente de los Comandos Autónomos Anticapitalistas.

El atentado más importante de esa segunda campaña fue sin duda el que costó la vida el 21 de diciembre de ese año en Angelu al dirigente de ETA José Miguel Beñaran Ordeñana "Argala" quien había dirigido el comando que ejecutó cinco años antes, en Madrid, al que iba a ser sucesor del dictador Franco, el almirante Carrero Blanco.

Uno de quienes perpetraron aquel atentado contra Argala, Jean-Pierre Chérid, se hizo después tristemente célebre tras explotarle un coche-bomba que estaba manipulando para atentar contra varios refugiados vascos en Biarritz, el 19 de marzo de 1984, durante la campaña de los GAL. Hasta entonces, había participado, desde 1975, en innumerables atentados de guerra sucia.

Cherid también participó, junto con otros muchos ultraderechistas de distintas nacionalidades, en el asesinato en Montejurra, el 9 de mayo de 1976, de dos militantes carlistas y todo indica que fue Carrero Blanco quien decidió servirse de ellos para la guerra sucia antes de que ETA lo hiciera saltar por los aires, el 20 de diciembre de 1973.

El responsable del comando de ETA que lo hizo saltar por los aires fue "Argala" y los servicios secretos españoles no

pararon hasta tomar cumplida venganza. Quisieron que saltara por los aires justo cinco años después de Carrero y ese día colocaron una bomba-lapa en su auto, pero Argala no lo usó hasta el día siguiente, el 21 de diciembre de 1978, falleciendo en el acto.

Tres semanas después de dicho atentado, se produjo el que casi costó la vida y dejó gravísimas secuelas a otro destacado militante de ETA, Joxe Manuel Pagoaga "Peixoto". Fue el primero de 1979, un año en el que otros tres refugiados fueron asesinados en Iparralde: Enrike Álvarez "Korta", Jon Lopategi "Pantu" y Justo Elizaran "Periko". Muchos más dejaron también sus vidas en años posteriores.

Aquel año, también intentaron secuestrar y hacer desaparecer en Iparralde a la refugiada Arantxa Sasiain que cinco años después, al morir Chérid, lo reconoció de inmediato como uno de los mercenarios que haciéndose pasar por policías franceses la sacaron del apartamento que compartía con otra refugiada, llevándola supuestamente detenida. Ya en la calle, terminó por sospechar de sus captores y se libró de puro milagro de terminar como Pertur.

El que no se pudo librar de ser secuestrado un año después fue "Naparra", dirigente de los Comandos Autónomos Anticapitalistas, CCAA, del que nunca más se ha vuelto a saber, como en el caso de Pertur. Tres años después, volvieron a intentar secuestrar a un dirigente de los CCAA, José Luis Salegi "Txipi" y poco después lo consiguieron en el caso de Lasa y Zabala.

En 1980 volvieron a repetirse los atentados mortales contra refugiados vascos en Iparralde, como el que causó la muerte de Joxe Martin Sagardia "Usurbil", y uno de ellos dejó en absoluta evidencia a las autoridades españolas. Un atentado en el que tres mercenarios ametrallaron el 23 de noviembre de 1980 el bar Hendayais, frecuentado por refugiados vascos.

El ametrallamiento causó la muerte de dos ciudadanos que nada tenían que ver con los refugiados y heridas a otras diez personas. Tras ello, los autores atravesaron violentamente la frontera en un vehículo y mostraron a los policías españoles el número de teléfono del comisario Ballesteros. Éste ocultó la identidad de los mercenarios y ordenó que fueran puestos en libertad.

Los últimos atentados de esa segunda campaña de guerra sucia en Iparralde se produjo en Donibane Lohizune y estuvo dirigido contra Eugenio Etxebeste "Antxon" quien resultó ileso. Tres años después, fue deportado por las autoridades francesas. Exactamente lo mismo que le sucedió a Txomin Iturbe.

Uno de los mercenarios que atentó contra Antxon fue detenido y, aunque pretendió llamarse André Pervins, se demostró que era en realidad un ex funcionario de la Di-

rección General de Seguridad llamado Vladimir Vit. Murió poco después y sus familiares reclamaron y obtuvieron una indemnización del Ministerio del Interior español.

En su huida, los mercenarios se vieron obligados a abandonar un par de pistolas Smith & Wesson que se demostró habían sido compradas en USA por la Policía española, como las famosas Mariettas de la primera campaña de la guerra sucia en Iparralde. Y otro tanto sucedió con algunas de las armas utilizadas en la tercera campaña, la de los GAL.

Nótese que los mercenarios que actuaron en Iparralde, sirviéndose de armas adquiridas por las Fuerzas de Seguridad españolas, también lo hicieron en París e incluso en Caracas, donde asesinaron a una pareja de refugiados vascos, Espe Arana y Jokin Etxeberria. Y probablemente, fueron asimismo los autores de varios asesinatos perpetrados en Hegoalde que jamás han sido esclarecidos, como los de Karlos Saldise y Ángel Etxaniz. Y también de un par de atentados cometidos con bombas-lapas, uno de los cuales provocó gravísimas heridas a un matrimonio de antiguos refugiados durante el franquismo: Jesús María Ijurko y Mari Karmen Illarramendi. El otro, felizmente frustrado, fue contra el alcalde de Hernani, Juanjo Uria.

Los únicos atentados de guerra sucia perpetrados en aquella época en Hegoalde que pudieron ser parcialmente esclarecidos fueron los siete asesinatos cometidos por dos ultras, uno de los cuales, Ignacio Iturbide "Piti", había sido denunciado una y otra vez como seguro participante en aquellos crímenes. El otro, Ladislao Zabala era de una conocida familia franquista.

Iturbide cometió su primer asesinato en su villa natal, Andoain, el 6 de mayo de 1979, y de inmediato las fuerzas políticas y sindicales de la villa crearon una comisión de investigación que señaló como principal sospechoso precisamente a Piti Iturbide. Y manifestó no poder entender cómo estaba en libertad alguien como él, «a quien se imputan múltiples y graves atentados».

Ahora bien, ello no supuso impedimento alguno para que Iturbide se cobrara otras seis víctimas mortales la primera de las cuales fue el concejal de Herri Batasuna de Donostia Tomás Alba. Un crimen que las autoridades españolas intentaron achacar a ETA promoviendo una campaña intoxicadora que ha llegado hasta nuestros días.

Tomás Alba fue una víctima de carácter marcadamente político, pero no sucedió ni mucho menos otro tanto con el resto de asesinados por Iturbide y Zabala. La gran mayoría de sus víctimas las escogieron al azar en el entonces denominado "triángulo de la muerte", entre Andoain, Hernani y Errenteria, donde todos aquellos atentados provocaron una gran psicosis.

Como se ve, Iturbide era archiconocido y fue señalado como máximo sospechoso de los asesinatos que se estaban cometiendo en el "triángulo de la muerte". Por eso, y porque varios responsables de formaciones políticas vascas amenazaron con denunciar públicamente el caso, no tuvieron otro remedio que detenerlo.

Tras la detención de ambos ultras, el Gobernador Civil de Gipuzkoa, Pedro Arístegui, afirmó que la Policía investigaba «desde hace varios meses a esas personas para proceder a



La bomba del 20 de enero de 1980, colocada por BVE en el bar Aldana de Alonsotegi, causó cuatro muertos.

su detención con garantías. Existían sospechas, pero no teníamos las pruebas suficientes». Sin embargo, cinco meses antes de la detención, el 27 de octubre de 1980, el Juzgado de Instrucción de Tolosa había expedido una orden de búsqueda y captura contra Piti Iturbide por tenencia ilícita de armas. Una orden de la que hicieron caso omiso y durante los cinco meses transcurridos hasta que finalmente fue detenido, Iturbide no sólo cometió dos asesinatos más, sino que también dejó parálitica a una persona y gravemente herida a otra.

Encima, cuando lo detuvieron, las autoridades españolas declararon haber desarticulado el Batallón Vasco-Español, pero en realidad dicha supuesta organización no existió jamás. Fue una simple sigla, BVE, destinada a ser utilizada según conviniera y, además, no todos los atentados que cometieron los dos ultras detenidos fueron reivindicados utilizando la sigla del BVE. Se usaron asimismo las siglas Triple A y GAE para reivindicar, respectivamente, su primer y segundo asesinato, lo que da una buena idea de cómo se servían entonces de todas aquellas siglas.

La detención de Iturbide tuvo como objetivo evitar el escándalo que se les venía encima a las autoridades españolas, y con los GAL intentaron hacer otro tanto, deteniendo a algunos ultraderechistas para que pareciera que se trataba de incontrolados. Ahora bien, tanto fue el cántaro a la fuente que terminó por romperse, y por poner al descubierto que aquella guerra sucia estaba directamente organizada por el Estado. Un Estado al que le sigue interesando sobremanera

que se hable de siglas, como los GAL y el BVE, para desviar la atención de su directísima responsabilidad. Le interesa que la guerra sucia se asocie a “organizaciones terroristas”, como los GAL y el BVE. Organizaciones que nunca existieron sino como pantallas para ocultar el terrorismo de Estado.

En el caso de Iturbide y Zabala, está más que claro que nada se hizo para esclarecer las complicidades con que contaron. Y es también obvio que ambos podían haber sido detenidos mucho antes. Sólo lo fueron cuando les interesó a las autoridades, para dar una imagen de que se actuaba también contra ese tipo de terrorismo y que éste era, tal y como defendían, obra de “incontrolados”. Por eso, los asesinatos cometidos por ambos también hay que clasificarlos dentro del terrorismo de Estado. Cuando menos, por omisión, porque el Estado se abstuvo de tomar las mínimas medidas necesarias para evitar dichos asesinatos, y después para clarificarlos hasta las últimas consecuencias.

En cuanto al resto de atentados jamás clarificados cometidos en aquella época, aún existen más motivos para achacarlos al terrorismo de Estado, precisamente porque el Estado nunca hizo nada para detener a los culpables. Además, lo que sucedió después con los GAL da motivos más que sobrados para sospechar que en aquellos atentados, anteriores a que diseñaran la famosa sigla de los GAL, también estuvo involucrado el Estado hasta las cejas. Ahí están las manifestaciones del general Sáenz de Santamaría, que de eso sabía un rato, para certificarlo.



14.11.1980, atentado mortal del BVE en Venezuela. Los feretros de Jokin Alfonso y Espere Arana en el aeropuerto antes de ser repatriados a Euskal Herria.

Urte bati begiratzuz, etorkizuna ikusmiran

Ilustrazioa:
Juan Antonio Olagorta "Txonta"

Iazko udaren amaieran gatazkaren ondorioen konponbidearen eremuari begira geneukan egoeraren argazkian bi estatuetakoko gobernuengan zegoen interes gune nagusia. Alde batetik, Pariseko Lan Esparruan ordura arte egindako ibilbidea sendotuko zuketzen urrats berriak udan zehar burutzea aurreikusten zen eta bestetik, PPren gobernu zentsura mozioarekin boteretik bota ondoren PSOEren gobernu berriak eta hainbat goi arduradunen ahotik espetze politika aldatzeko asmoa iragartzen zen. Beraz, iazko uda sarrerako argazkian bi estatuen balizko interbentzioek kurtso politiko berrirako beste espektatiba bat irekitzen zuten, batez ere Estatu espainiarak ordura arte PPren gobernuarekin mantendutako espetze politika aldatzeari begira.

Epe motzean agerian geratu zen PSOEn gobernuak espetxe politika berrira salto egin baino PPK indarrean zuena errebisatu eta arintzera jotzen zuela. Eta hala, iazko irailaz geroztik tantakako gerturatze eta gradu aldaketen bide motelari ekin zion. Urrun geratzen ziren PSOeko goi karguen adierazpenetan iragarritako preso gaixoen kaleratzeak edota presoen Euskal Herriratzeak baina, hori horrela izanik ere, PPren itxikeriari zirrikituak irekitzea eta presoan egoeran hobekuntzak ematea bere neurrian baloratzen da, bere txikian urratsa delako eta ahalegin eta borroka askoren ondorio.

Espainiarrek aipatu jokabideari ekiten zioten bitartean Frantziar gobernuak Pariseko Lan Esparruaren agendaren garapena galgatzera jo zuen. Espainiar Biktimen Elkarte oniritzirik ezean urrats gehiago egitea etenaz. Jokaera honen Lan Esparrua marko gisara inaktibitatez kondenatu zuen eta horren aurrean IEHko ordezkariak eta Bake Bideak egoera salatzeaz gain hiru ardatzetan oinarritutako lan ildoari ekin zioten, hau da, atal politiko-instituzionalen, mobilizatzailean eta diplomatikoan oinarritutako jardunbideari. Helburua Pariseko Lan Esparrua 2018ko ekaina arteko egoerara eramatea.

Gobernu baten moteltasunaren eta bestearen galgatzearen aurrean ofentsiba oso bat diseinatu zen armagabetearen ondoren abian jarritako “Orain Presoak” ildoari jarraipena emanez. Foro Sozial Iraunkorrek finkatutako “premiazkotako agenda” baitan Hego Euskal Herrian inoiz eman den adostasun maila zabalenak erdietsi ziren preso gaixoen askatasunaren, euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen, gradu progresioaren eta zigor batuketaren alde. Bai eremu sindikalean nola lau herrialdeetako instituzio guztietan, bi parlamentuetan, Batzar Nagusietan eta udaletxe asko eta askotan.

“Orain presoak” ildoak bere lehen mobilizazioa Donostian egin zuen, 1977az geroztik euskal presoaren eskubideen alde berrogei urte pasatxotan inoiz bildu ez ziren ideologia ezberdinetako eragileak deitzaile izanez. Urriaren 20ko mobilizazioa kuantitatiboki jendetsua izateak baino bildutako deitzaileek markatzen dute, urrats kualitatiboan datza esangura nagusia. Aurrera begira presoan aferaren konponbideari begirako ibilbidean izan dezakeen eraginagatik.

Donostiako ekimenaren dirdira eta hotsak oraindik bizi bizian zeudela iritsi zen Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiaren erabakia zigor batuketaren aferan Estatu espainiarren jokabidea ontzat emanez. Estrasburgoko Auzitegiaren erabakiak ez ditu ate guztiak ixten baina espainiar botere politiko edo judizialaren aldetik borondate ezean oso konplexua izango da biderik urratzea, Luxenburgoko Europako Justizia Auzitegian “cuestión prejudicial” deritzana aurkezteari uko egiten baitiote espainiar botereek.

Estrasburgoko Auzitegiaren erabakiaren aurrean “Orain Presoak” dinamikak harremanen ildo indartzearekin batera bi mobilizazio deitu zituen Bilbo eta Baionara. Biak ala biak bultzatzaile andana zabal bezain anitzak babestuta eta erantzun oso jendetsuak izan zituztenak. “Orain presoak” ildoak urte eta erdian kale mailan Paris, Donostia, Bilbo eta Baionan izan ditu lau ekimen gogoangarri baina bere irismena ez da adierazpen horietara mugatzen, izan ere, mobilizazio horiekin batera harreman dinamika aparta garatu baita.

Foro Sozial Iraunkorretik bultzatutako harreman dinamika hori gatazka politikoak eragindako biktima ezberdinak biltzera eta urrats ezberdinak egitera ere luzatu da. Izan ere, Foro Sozial Iraunkorra eta bere baitako eragileak eta norbakoak biktimekin harreman eta ekimen egitasmo zabalaren



eskutik espazio berri bat sortzeko orubea eraikitzen ari baitira. Elkarbizitza bultzatzeko alde guztietako biktimen arteko espazio berria hain zuzen. Foro Sozial Iraunkorraren baitan dagoen eragilea den Etxerategi joan den martxo hasieran egindako adierazpenean zioen eran euskal jendarteari begira lanean segitu behar baita gehiengo sozialak eraikitzen urrats berriak eginez. Espetxe politika aldatzea eta preso eta iheslarien afera konponbidera eramatea elkarbizitzarako bultzada gisara ulertzen ari den zerbait da eta Etxeraten ekimena elkarbizitzaren aldeko ekarpena izan zen eta zentzu horretan hartua izan behar da. Eta une berean blokeo politikak pitzartzeko ahalegin gisara.

Gatazkaren ondorioen konponbidearen joraketan kurtso politikoa oso emankorra izaten ari da eta horren frogar nagusietako bat da Pariseko Lan Esparruan iazko ekainaz geroztik emandako krisi egoerari buelta eman izana. Frantziar gobernuaren jarrera aldatzea hilabete luzeetan garatutako ildo oso baten ondorioa izan da, eremu ezberdinetatik batera arituz hautsi baita blokeoa, bai ekimen eta aktibazio sozialarekin, bai mobilizazioekin, bai eremu politikoa eta instituzionaletik mantentutako irmotasun eta batasunetik eta baita harreman eta diplomaziatik egindako lan isilaren eskutik. Lan Esparrua iazko ekainera arteko lan girora bueltatu da, betoak gainditu dira eta Mikel, Atizol,... Lannemezana gerturatu dituzte jadanik. Lan esparruak zeukan izaera erresolutiboari heldu dio berriz eta agendaren joraketa osoari ekin dio lehenik hurbilketen afera itxiz eta gainontzeko gaiei helduz.

Une bertsuan Estatu espainiarreko hauteskunde orokorrak egin dira eta emaitzek argitu dute gobernu berriaren osaketa. PSOEren gobernu berriarekin espetxe politikan azken hilabeteetan izan duen jokabidea beste estadio batera, norabide erresolutibora, eramatea izan behar du helburu nagusia. Eta horretarako ezinbestekoa izango da ibilbide adostua eta herri dinamika anitz eta zabalak erdieste.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboari dagokionez, bere azken eztabaida prozesuan hartutako erabakiak garatzen segitzen du. Hala, batetik bai Bake Bidearekin, bai Foro Sozial Iraunkorrek harreman dinamika iraunkorra mantentzen dute presoan aferaren konponbidearen aldeko ahaleginean ekarpenak egiten. Bestetik preso bakoitza bere herriko eragile sozialei bere errealitatearen berri ematen ari da sozializatua izan dadin eta hirugarrenik, oztopo eta zailtasunak tarteko bide juridiko arrunta jorratzen segitzen dute Kolektiboko ki-deek eta jada %66a eremu juridikoan murgilduta dago.

Iazko udaren hasieran edota kurtso amaierako argazki politikoa espektatiba interesgarria eskaintzen baldin bazuen gatazkaren ondorioen konponbidean aurre urratsak egin ahal izateko aurtengoak ere antzeko zerbait marrazten du. 2018-19an egindako bidean aurrera eginaz, sortutako baldintzaz baliatuz eta indartuz 2019-20 kurtso politikoa koska garrantzitsu bat gora egiteko garaia izan daiteke.

Bide juridikoan hainbat urrats

Estatu Espainiarrean egun dauden 213 preso politikoetatik jada 142 preso abiatu dute ibilbide juridiko berria, % 66,66, edo, beste era batera esanda, 2/3-a hasi da lan destinoak eskatzen, gradua errekurritu edo bestelako ekimen juridikoak egiteko bidea.

Hala ere, kontuan hartu behar da preso politikoen erdiak (%50), oso urrunduta jarraitzen duela, beren bizilekuetatik 600 eta 1.100 kilometrorra, baldintza oso gogorretan eta salbuespen neurriek indarrean jarraitzen dute. Beraz, dauden oztopoak oztopo, urteko epe batean bi herenak dinamika honetan sartu izanak erakusten du EPPKko presoek egindako apustuaren neurria.

Aldiz, PSOE-ren gobernuak duela urte bete asmo onen berri eman zuen arren, eta ETA-ren disoluzioaren ondoren, salbuespeneko politika penitentziarioarekin eta urrunketarekin amaituko zuela esan zuen arren, bide honetan amandako urratsak oso eskasak izan dira:

- Gradu progresioa eman eta hein baten hurbildu dituen presoak 25
- Gradu progresioa eman baina hurbildu ez dituenak 8
- Hurbildu arren gradu progresio eman ez dietenak 2
- Etxean preso ezarri dituzten EPPKko preso gaixo larriak 1

Gaur egun, 43 preso aurkitzen dira 2. graduan edo erregimen ordinariora. Batzuk EIIOren inizatiba izan dira baina beste batzuk epaitegietan irabaziak. Horietako batzuk gerturatuak izan dira baina inor ez da Euskal Herriko espetxe batera aldatua izan. Oraindik ere 170 preso 1go graduan aurkitzen da, hau da salbuespeneko den erregimen batean. Gainera, 40 preso inguru, erregimen itxiko moduluetan aurkitzen dira.

BIGARREN graduan daudenen kasuan, haietako gehienek irteera baimenak eskatu dituzte. Gaur egun bakar bati onartu zaio 3 egunetako irteera baimena: Gorka Fraileri. Beraren aurretik, jada kalean dauden beste 4 presok lortu zituzten irteera baimenak, euren kondenaren amaieran. Beste kasu guztietan, Administrazio edo judizialki irteera baimenak ukatu dituzte nahiz eta legezko baldintza guztiak beteta izan arren.

Beraz, presoan jarrera guztiz txalogarria den arren, ezin da gauza bera esan espainiar espetxe politika gidatzen dutenengatik. Preso politikoei emandako urrats guztiak emanda ere, salbuespeneko neurriak aplikatzen jarraitzen dute. Datozen hilabeteetan gobernu berriarekin jarrera hau aldatzea espero dugu.

Instituzioak, eragileak eta herri ekimenak

Andoain

Matilde Arribillagaren heriotzaren urteurrenaren harira, joan den otsailaren 22an Andoaingo Udabatzak urrunketa politikaren aurka eta espetxe politika berri baten aldeko mozioa onartu zuen aho batez. EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Ganemos Andoain eta Irabazi Ganar Andoain alderdien bozkekin onartu zen mozioa.

“Itzaletik argira”

Iturrama auzoak, presorik ez duela ospatzeko, “Itzaletik Argira” ekimena jarri zuten abian memoria kolektiboa lantzeko. Auzoan azken 10 urteetan ezagututako errepresioarekin bizipen multzoa osatzen duen dokumental labur bat grabatu dute.

Lasarte

Berrito gerta ez dadin, Urrunketarekin Amaitu! Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi sakabanaketaren biktimak prentsaurreko-konzentrazio masibo batekin oroitu

zituzten Otsailaren 28an Lasarte-Orian. Orain dela 16 urte Argi eta Iñaki, semea eta anaia bisitatzeko asmoz Almeriako espetxera bidean zihozazela zendu ziren auto istripu batean.

Altsasukoekin

EH Bildu, PNV, ERC eta Unidos Podemoseko diputatuen delegazio batek bisita egin zien martxoaren batean Arabako Zaballan dauden Altsasuko zazpi gazteei. Gazteok Estatu espainiarraren “estrategia errepresiboaren turko-buru” direla salatu zuten.

Hogei urte kartzelan

“Irantzu 20 urte bahitua” goiburuarekin Gudarien Enparantzan Martxoaren 9an egindako elkarretaratze batean Irantzu Gallastegik kartzelan 20 urte daramala salatu zuten Berangon. Hurrengo egunean Sopelan Sergio Polok espetxean bi hamarkada daramatzala salatzen ekitaldi politiko bat burutu zuten Udaletxeko plazan “Etxera etor-

tzeko garaia da, Sergio 20 urte espetxean” lelopean.

Erabateko desadostasuna

Martxoaren 11an Bozeramaileen Batzordearen adierazpen baten bitartez Nafarroako Parlamentuak bere “erabateko desadostasuna” adierazi zion Altsasuko gazteei ezarritako zigorra berretsiz espainiar Auzitegi Nazionalak emandako ebazpenari.

Ibon askatzeko

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Giza Eskubideen komisioak, PP falta zela, martxoaren 13an aho batez onartu zuen Gobernu frantsesari eskatzea esklerosi anizkoitza duen Ibon Fernandez Iradi presoaren askatasuna. Onartutako testua agintari frantsesei zuzentzen zaie, “indarrean dagoen legedia eta nazioarteko estandarrak aintzat har ditzatela” eskatuz, “Fernandez Iradi bezala” gaitasun larri eta sendaezinak dituzten presoek kaleratzea “gizabide eta duinta-



sunagatik” bidera dezaten. Horrez gain, “preso guztiek duten bizitza, segurtasun eta osasun eskubidea” babestu dezala eskatzen zioten Pariseko Gobernuari.

Europar Parlamentuan

Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske Plataformak martxoaren 20an Europako Parlamentuan salatu zuten ihes egiteko arriskuaren aitzakia baliatuz, eta zigorra behin betikoa izan gabe, behin behineko espetxealdiaren gehiegizko erabilpena eta Auzitegi Nazionaleko Salan jarritako helegitearen ondorengo ebazpenean hain zigor handiak berrestea.

Biktimen lege berria

Polizien indarkeriaren eta eskuin muturrari edo estatuko beste funtzionarioei egotzitako biktimen errekonozimendu eta erreparazioaren legea onartu zen Nafarroako Parlamentuko osoko bilkuran. Arau honen helburua da prozedura administratibo baten bitartez “biktima hauekiko dagoen lege hutsunea konpontzea”.

Bi Euskal Parlamentuan

Martxoaren 25an Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen Foro Sozialak estamentu ofizialetatik praktikaturako indarkeriaren biktimekin burututako hitzorduen ondorioekin osatutako txosten bat. Foro Sozialaren ustez biktima hauek bi aldiz biktima sentitzen dira, jasan duten kalteagatik eta instituzioen ahanzturagatik. Hilaren 31an Nafarroaren txanda izan zen, eta bertara eraman zen Estatuaren biktimentzat egiaren beharra. Biktima hauekiko biktimizazio bikoitzari eta utzikeria publikoari buruz duen pertzepzioa eraman zuen Foro Sozial Iraunkorrek.

Euskaldunentzat erreparazioa

EHEk (Euskal Herrian Euskaraz) “Egia, aitortza eta erreparazioa euskararen herriarentzat” exijitu nahi izan zuen martxoaren 29an manifestuarekin eta Donostian egindako ekitaldiarekin. Iniziatiba honekin “euskaraz bizi nahi izateagatik hamarkadetan pairatutako bortxa ukaezina” mahai gainean jarri nahi zuen.

Urrunketaren aurka

Sarek Donostian burututako ekimen batean EAJ, EH Bildu, PSE eta Irabaziren babesarekin onartu zen urrunketa politikaren aurkako adierazpenari babesa eman zioten hainbat eragile eta norbanakok Donostian. “24 dira urrundak dauden donostiar presoak. Haiek ez ezik, senide eta lagunok sufritzen ditugu urrunketaren ondorioak. Azken hilabeteotan mugimendu batzuk izan dira; preso batzuk hurbildu dituzte, baina ez da nahikoa. Gaur, eta hemen, konpromiso bat hartzen dugu: guk eman dugun atxikimenduaren bidetik, norbanako eta eragile gehiagoren atxikitzea lortzea eta denon artean Donostiako euskal presoak etxean egon daitezen adierazpenari babes zabalena lortzea”, adierazi zuten Sarek burututako ekitaldian. Adierazpen honi jarraiki, Donostiako Udalari ahal duen guztia egin dezala eskatu zioten. “Orain bizikidetzaren, eta konponbidearen garaia da, orain euskal presoaren garaia da”, nabarmendu zuten.

“Orain Jon Gurutz”

Larriki gaixo dauden presoaren zerrendan sartu ondoren, otsailaren 27an Etxarri Aranatzan abian jarri zuten ekimen bat Jon Gurutz Maizaren etxeratzea eskatzeko. Otsailean ekimena arukezta eta maiatzaren 2an Etxarriko Kultur etxean

90 pertsona inguru hatu zuten parte dinamika berriak Fernando Arburua (Jaiki Hadi), Anaiz Funosa (Bake bidea) eta Xantiana Cachenautekin (Abokatua) antotalu zuen solasaldian.

Etxera Eguna

Santiago plazatik abiatu zen 5'5 kilometro herri lasterketa batekin ospatu zuten “Etxera Eguna” Lizarran joan den maiatzaren 11an. Orain presoak dinamika antolatuz zuten Lizarran.

Etxarri eta Bilbon

Albocasserreko espetxean (Castellón II) dauden Juan Ramon Karasatorre eta Harriet Iragi euskal preso politiko senideek jasandako tratua arbitrario eta onartezina salatu zuten Etxerat elkarteak, eta baita bi presoaren emazteei jarritako zigor neurrigabea ere, 6 hilabetez bisitarik gabe utzi baitituzte. Horren harira, 17an Etxarriko plazan eta 21an Bilboko Arriaga plazan Sarek eta Etxerategi antolatutako elkarretarazteetan salatu zituzten erasoak.

En soutien à Josu Urrutikoetxea

Liberation egunkarian argitaratutako agiri batean Josu Urrutikoetxea aske uzteko eskatu du intelektual talde batek. Urrutikoetxearen atxiloteta “albiste txarra” dela diote agirian, eta euskal gatazkaren konponbiderako euskal presoaren lana “ezinbestekoa” izan dela diote. Sinatzaileen ustez, “ezin ulertzekoa” da Urrutikoetxeak “gatazka armatua amaitzeko egindako lanaren” ostean, “mespretxua eta errepresioa” jasatea. Agiriaren bost sinatzaileak dira Alain Badiou, Etienne Balibar, Jean Luc Nancy, Toni Negri eta Jacques Rancière idazle eta filosofoak eta Thomas Lacoste Errealizadorea.



Adineko presoak, etxera!

Euskal preso politikoen erradiografia arretaz begiratu gero, adineko presoaren egoeraren larritasunaz jabetuko gara. Estatu frantseseko zein espainoleko espetxeetan dauden 253 preso politikoetatik 41k 60 urte baino gehiago dituzte: 60 eta 65 urte artean daudenak 23 dira; 65 eta 70 urte artean 15 eta 70 urte baino gehiagokoak 3 preso dira.

Datuak argiak bezain kezagarriak dira. Adineko preso hauetatik 12k 15-20 urte daramate kartzelan; 9 presok 20 eta 25 urte artean eta 12 presok 25 eta 30 urte arteko gatibu aldia daramate. Bizitza oso bat. Agerikoa da espetxealdi luzeen ondorioz preso hauek osasun arazo larriagoak jasaten dutela. 60 urte baino gehiago dituzten artean, 7 presok gaixotasun larriak garatu dituzte, Jaiki Hadiren azkeneko datuen arabera. Batzuk zerrenda publikoan agertzen dira eta beste batzuk identitatea gordetzea nahiago izan dute. Baina konklusioa argia da: zenbat eta denbora gehiago kartzelan, orduan eta gaixotasun (fisiko zein psikiko) gehiago garatzeko arriskua dago.

Bestetik, estatu espainoleko salbuespeneko legediak zuzenean eragiten die pertsona hauei, sakabanaketa eta urruntasun politika ankerrak erakusten duen moduan. Adineko presoaren espetxeratze tokia euren bizilekuetatik urrun, oso urrun dago. Euskal Herritik 625 kilometrora aurkitzen dira, batzuetan beste. Argazki honek argi adierazten du estatu espainolak euskal preso politikoen aurka darabilen krudelkeria. Kode penal espainiarrak 36.3 artikuluan adierazten duenez, hirurogeita hamar urtetik gorako presoek hirugarren gradura igarotzeko aukera dute, arrazoi humanitario eta duintasunagatik eta suposatzen duten arrisku ezagatik. Hirugarren gradua ezinbesteko mugarrria da, lege penitentiarioan bide eginez, baldintzapeko askatasuna erdiesteko.

Baina errealitatea bestelakoa da: 41 preso horietatik, bat hirugarren graduan dago eta hiru baino ez daude bigarren graduan, beste guztiak lehenengo graduan aurkitzen dira. Bigarren graduan dauden hiru pertsona horiei hirugarren gradura pasatzeko oztopoak baino ez zaizkie jartzen behin eta berriz. Preso hauei legea aplikatuz gero kalean egongo lirateke. Nahikoa da mendekuaren politika aplikatzeaz! Etxean libre eta bizirik nahi ditugu!

ESTATU ESPAINOLEAN




**SEBAS
ETXANIZ ALKORTA
ELGOIBAR**

Adina 75 urte. 1943an jaioa
Urteak kartzelan 17 urte
2002an atxilotua
Espetxea CP Asturias
Villabona (390 km). 2. gradua



**JOSEBA
ARREGI EROSTARBE
OÑATI**

Adina 73 urte. 1946an jaioa
Urteak kartzelan 27 urte
1992an atxilotua
Espetxea CP Alacant II
Villena (700 km). 1. gradua



**JOSE RAMON
FORURIA ZUBIALDE
MARKINA-XEMEIN**

Adina 70 urte. 1949an jaioa
Urteak kartzelan 16 urte
2003an atxilotua
Espetxea Etxean Preso
3. gradua. Gaixo larria



**JOSE JAVIER
ZABALETA ELOSEGI
HERNANI**

Adina 69 urte. 1950ean jaioa
Urteak kartzelan 29 urte
1990ean atxilotua
Espetxea CP Zaragoza
Zuera (250 km). 1. gradua



**DOLORES
LOPEZ RESINA
GRANOLLERS/DURANGO**

Adina 68 urte. 1951n jaioa
Urteak kartzelan 16 urte
2003an atxilotua
Espetxea CP Avila-Brieva
(475 km). 1. gradua



**EMILIO
SALABERRIA ETXEBESTE
VILLABONA-AMASA**

Adina 68 urte. 1951n jaioa
Urteak kartzelan 17 urte
2002an atxilotua
Espetxea CP El Dueso
Santoña (170 km). 2. gradua



**IÑAKI
ARAKAMA MENDIA**
GASTEIZ – ERROTA

Adina 68 urte. 1951n jaioa
Urteak kartzelan 22 urte. 1997an atxilotua. 1989tik 1997ra Deportatua
Espetxea CP Sevilla II (960 km). 1. gradua



**KEPA
LEGINA AURRE**
BILBO – SANTUTXU

Adina 65 urte. 1954an jaioa
Urteak kartzelan 20 urte 1999an atxilotua
Espetxea CP Zaragoza Zuera (250 km). 1. gradua



**JUAN MANUEL
INZIARTE GALLARDO**
ORERETA

Adina 67 urte. 1952an jaioa
Urteak kartzelan 10 urte 2009an atxilotua
Espetxea CP Topas - Salamanca (460 km). 1. gradua



**JOSUNE
ARRIAGA MARTINEZ**
IRUÑEA – DONIBANE

Adina 64 urte. 1955ean jaioa
Urteak kartzelan 9 urte 2010ean atxilotua
Espetxea CP Topas Salamanca (460 km). 1. gradua



**MIKEL
IZPURA GARCIA**
IRUÑEA – TXANTREA

Adina 67 urte. 1952an jaioa
Urteak kartzelan 17 urte 2002an atxilotua
Espetxea CP Asturias Villabona (390 km). 2. gradua



**JOXEMARI DORRONSORO
MALAXETXEBERRIA**
DONOSTIA – EGIA

Adina 64 urte. 1955ean jaioa
Urteak kartzelan 26 urte 1993an atxilotua
Espetxea CP Puerto III – Pto. de Santamaria (1050 km). 1. gradua



**GREGORIO
ESKUDERO BALERDI**
ORIO

Adina 66 urte. 1953an jaioa
Urteak kartzelan 17 urte 2002an atxilotua
Espetxea CP Teixeira Curtis A Coruña (600 km). 1. gradua



**ANGEL
TELLERIA URIARTE**
BILBO – INDAUTXU

Adina 64 urte. 1955ean jaioa
Urteak kartzelan 2 urte 2017an atxilotua
Espetxea CP Madrid VII Estremera (520 km). 1. gradua



**JOSEBA
EROSTEGI BIDEGUREN**
ANTZUOLA

Adina 66 urte. 1953an jaioa
Urteak kartzelan 22 urte 1997an atxilotua
Espetxea CP Herrera de la Mancha (630 km). 1. gradua – Gaixo larria




**JOSE LORENZO
AIESTARAN LEGORBURU**
LEZO

Adina 62 urte. 1957an jaioa
Urteak kartzelan 9 urte 2010ean atxilotua
Espetxea CP Alacant II Villena (700 km). 1. gradua



**FRANCISCO
MUJIKA GARMENDIA**
ORDIZIA

Adina 66 urte. 1953an jaioa
Urteak kartzelan 27 urte 1992an atxilotua
Espetxea CP Zaragoza Zuera (250 km). 1. gradua



**ANTTON
TROITIÑO ARRANZ**
DONOSTIA – INTXAURRONDO

Adina 62 urte. 1957an jaioa
Urteak kartzelan 30 urte. 1987-2011 eta 2012 eta 2013an berriz atxilotua
Espetxea CP Madrid VII Estremera (520 km). 1. gradua



**JOSU
ARKAUZ ARANA**
ARRASATE

Adina 62 urte. 1957an jaioa
Urteak kartzelan 28 urte
1991n atxilotua
Espetxea CP Murcia II – Campos
del Rio (820 km). 1. gradua



**ENDIKA
GARATE GALARZA**
OTXANDIO

Adina 62 urte. 1957an jaioa
Urteak kartzelan 15 urte
2004an atxilotua
Espetxea CP Puerto I – Puerto de
Santamaria (1050 km). 1. gradua



**RUFINO
ARRIAGA ARRUABARRENA**
ORDIZIA

Adina 62 urte. 1957an jaioa
Urteak kartzelan 22 urte
1997an atxilotua
Espetxea CP Sevilla II (960 km)
1. gradua



**GREGORIO
VICARIO SETIEN**
DURANGO

Adina 62 urte. 1957an jaioa
Urteak kartzelan 18 urte
2001ean atxilotua
Espetxea CP Topas – Salamanca
(460 km). 1. gradua



**IBON
MUÑOA ARIZMENDIARRIETA**
EIBAR

Adina 61 urte. 1958an jaioa
Urteak kartzelan 18 urte
2001ean atxilotua
Espetxea CP Cordoba (830 km)
1. gradua



**UNAI
PAROT NAVARRO**
BAIONA

Adina 61 urte. 1958an jaioa
Urteak kartzelan 29 urte
1990ean atxilotua
Espetxea CP Puerto III – Pto. de
Santamaria (1050 km). 1. gradua



**JESUS MARIA
GOMEZ EZKERRO**
IRUÑEA – ERROTXAPEA

Adina 61 urte. 1958an jaioa
Urteak kartzelan 18 urte
2001ean atxilotua
Espetxea CP Asturias
Villabona (390 km). 2. gradua.



**JOSE ANGEL
OTXOA DE ERIBE LANDA**
URKABUSTAIZ

Adina 61 urte. 1958an jaioa
Urteak kartzelan 19 urte
2000n atxilotua
Espetxea CP Castello I (575 km)
1. gradua art. 100.2. Gaixo Larria



**JOSETXO
ARIZKUREN RUIZ**
IRUÑEA – ALDE ZAHARRA

Adina 61 urte. 1958an jaioa
Urteak kartzelan 20 urte
1999an atxilotua
Espetxea CP Murcia II (820 km)
1. gradua art. 100.2 – Gaixo Larria



**AGURTZANE
DELGADO IRIONDO**
ERMUA

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 19 urte
2000n atxilotua
Espetxea CP Albolote
Granada (860 km). 1. gradua




**JULEN
ATXURRA EGURROLA**
LEKEITIO

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 23 urte
1996an atxilotua
Espetxea CP Puerto I – Pto. de
Santamaria (1050 km) 1. gradua



**JOSEBA
BORDE GAZTELUMENDI**
UGAO

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 17 urte
2002an atxilotua
Espetxea CP Algeciras (1100 km)
1. gradua – Gaixo Larria



**IÑAKI
BILBAO BEASKOETXEA**
LEMOA

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 27 urte
1992an atxilotua
Espetxea CP Castello II
Albocasser (500 km). 1. gradua



**JOSU URRUTIKOETXEA
BENGOETXEA**
UGAO

Adina 69 urte. 1950ean jaioa
Urteak kartzelan 9 urte
1989an atxilotua eta 2019an
Espetxea M.A La Santé – Paris
(930 km) Prebentiboa – Gaixo larria



**XABIN
USANDIZAGA GALARRAGA**
OÑATI

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 22 urte
1997an atxilotua
Espetxea CP Córdoba (830 km)
1. gradua



**JON KEPA
PAROT NAVARRO**
BAIONA

Adina 68 urte. 1951n jaioa
Urteak kartzelan 29 urte
1990ean atxilotua
Espetxea Muret CD
(420 km)



**JESUS MARIA
ALTABLE ETXARTE**
IRUÑEA – TXANTREA

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 25 urte
1994an atxilotua
Espetxea CP Castelló I
Castelló (575 km). 1. gradua



**FREDERIC
HARANBURU**
SENPERE

Adina 65 urte. 1954an jaioa
Urteak kartzelan 29 urte
1990ean atxilotua
Espetxea Lannemezan CP
(330 km)

ESTATU FRANTSESEAN



**JAKES
ESNAL**
DONIBANE LOHITZUNE

Adina 69 urte. 1950ean jaioa
Urteak kartzelan 29 urte
1990ean atxilotua
Espetxea Saint Martin de Ré
CP (550 km)



**LUIS
IRURETAGOIENA LANZ**
TOLOSA

Adina 63 urte. 1956an jaioa
Urteak kartzelan 12 urte
2007an atxilotua
Espetxea Mont de Marsan CP
(260 km)



**JON GURUTZ
MAIZA ARTOLA**
ETXARRI ARANATZ

Adina 69 urte. 1950ean jaioa
Urteak kartzelan 12 urte
2007an atxilotua
Espetxea Lannemezan CP (330 km)
Gaixo Larria



**IÑAKI
RETA FRUTOS**
ELORRIO

Adina 60 urte. 1959an jaioa
Urteak kartzelan 4 urte
2015ean atxilotua
Espetxea Mont de Marsan CP
(260 km).

Herrika eta eskualdeka

Euskal Herriko presoen karta

ARABA

Gasteiz

- Errota 3
- Judizmendi 3
- Txagorritxu 2
- Alde Zaharra 4
- Aranbizkarra 1
- El Pilar 1
- Arana 1
- Bestelakoak 1

Aiara

- Amurrio 1

Lautada

- Asparrena 1

Gorbeialdea-Zuia*

- Urkabustaiz 1
- Zigoitia 1
- Otxandio* 2
- Orozko* 1

BIZKAIA

Bilbo

- Alde Zaharra 8
- Bilbo zaharra 1
- Deustu 1
- Indautxu 3
- Santutxu 6
- San Inazio 2
- Uribarri 1

Arratia

- Lemoa 1

Busturia

- Gernika 3

Durungaldea

- Atxondo 1
- Durango 8
- Elorrio 3
- Ermua 1
- Iurreta 1

Ezkerraldea

- Barakaldo 3
- Sestao 1
- Santurtzi 3
- Portugalete 3

Hego Uribe

- Arrigorriaga 1
- Basauri 4
- Galdakao 9
- Ugao 4
- Zaratamo 1

Lea-Artibai

- Lekeitio 1
- Markina-Xemein 1
- Ondarroa 3

Meatzaldea

- Ortuella 1
- Trapaga 2

Txorierra

- Larrabetzu 1

Uribe Kosta

- Algorta 6
- Berango 4
- Sopela 2
- Urduliz 2

* Orozko eta Otxandio, Araban kontatzen dira presoiei dagokionean, berez Bizkaia izan arren.

GIPUZKOA

Donostia

- Alde Zaharra 3
- Altza-Bidebieta 3
- Amara 3
- Amaraberri 1
- Antiguu 1
- Egia 3
- Gros 3
- Intxaurrenondo 2
- Martutene 1

Bidasoa

- Irun 4

Buruntzaldea

- Astigarraga 1
- Andoain 2
- Hernani 16
- Lasarte 3
- Usurbil 1

Debabarrena

- Eibar 1
- Elgoibar 1

Debagoiena

- Antzuola 1
- Arrasate 1
- Aretxabaleta 1
- Eskoriatza 1
- Oñati 3

Goierra

- Beasain 3
- Itsasondo 1
- Legorreta 1
- Ordizia 3
- Segura 1
- Urretxu 3
- Zaldibia 1
- Zumarraga 1

Oarsoaldea

- Errenteria 7
- Lezo 1
- Pasaia 1

Tolosaldea

- Billabona 5
- Elduain 1
- Gaztelu 1
- Leaburu 1
- Lizartza 2
- Tolosa 1

Urola-kosta

- Azpeitia 2
- Orío 2
- Zarautz 1

IPARRALDE

Bab

- Baiona 2

Lapurdi Itsasegia

- D. Lohitzune 1
- Hendaia 1

Lapurdi garaia

- Kanbo 1

Ostibarre

- Pagola 1


Lapurdi erdialdea

- Senpere 1

KATALUNYA

Katalunya

- Granollers 1



NAFARROA

Iruñea

- Alde Zaharra 4
- Txantrea 7
- Errotxapea 4
- Donibane 5

Iruñerria

- Burlata 2
- Atarrabia 1
- Berrioizar 3

Bortziriak

- Arantza 1
- Lesaka 3

Sakana

- Etxarri Aranatz 5

Lizarreriko Erribera

- Lodosa 1

- +20
- 11-19
- 5-10
- 2-4
- 1

Euskal preso politikoaren sakabanaketa eta urruntasunari buruz, Estatu espainiar eta frantseseko espetxe bakoitzean zenbat kide dauden, espetxe horiek zein urrun dauden erakutsi nahi izan dute orain arteko mapek.

Oraingo honetan mapa horren beste ifrentzua da begietara ekarri nahi duguna, mapa hori Euskal Herrira ekarri nahi dugu. Horrela, hemen ikus daitezke Euskal Herriko zein lekutan, zein eskualdetan, zein txokotako herrietan eta etxeetan eragiten duen zuzenkien sakabanaketa eta urrunketa horrek sufrimendua; Euskal Herriko zein lekutako haurren, guraso adinekoen, lagunen eta senideen sufrimenduarekin asetzen den gaurko espetxe politika zikoitza.

Presoen eskubideak auzipetuen aulkian

Herrirari, Jaiki Hadiri, abokatuei, bitartekariei... epaiketa politikoa



J oan den apirilean eman zen jakitera presoena eskaera eta eskubideen defentsa lanekin zerikusia duten 47 pertsonen aurkako epaiketa datorren irailaren 16an hasiko dela espainiar Auzitegi Nazionalan, eta gutxienez azaroaren azken aldera arte iraungo duela

Auzipetuek beraiek azaldu zuten “erakunde terroristan parte hartze aktiboa izatea”, “terrorismoa goratze iraunkorra” eta “terrorismoa finantzatzea” egotziz 11 eta 17 urte bitarteko zigorrak eskatzen dizkiela fiskaltzak beraietako bakoitzari, irizpide horretatik bereizten den 20'5 urteko eskaera bat salbu. Zentzugabeko salaketa batzuekin epaitu nahi dute, azken batean, giza eskubideen alorreko militantzia eta zuzenbide alorreko jarduera profesionala, “terrorismo” delituekin, ETAk bere ibilbide armatuaren behin betiko eta alde bakarreko amaiera iragarri eta hiru urtera gainera. Salaketa sinestezinak dira, fiskaltza, makro-epaiketa berri honetan, 47 auzipeturentzat 572 urteko kartzela eskaera justifika ezina egitera erakarri dutenak.

Alderaketa eginez, aipatu daiteke “Procés” deituan Auzitegi Nazionalan 22 auzipeturentzat egindako eskaera fiskalak. “Matxinada” edota “sedizio” salaketa duten kontseilari, polizia eta instituzio arduradun guztientzat 11 eta 17 urte bitarteko eskaera fiskala egin zen, Generalitateko lehendakari orde eta salatu nagusi Oriol Junquerasentzat egindako 25 urteko espetxe eskaera salbu.

“Procés”ean fiskaltzak egindako eskaeren berri jakin bezain bizkor esan zen hori “jende baketsu eta duinaren aurka egindako salaketa fiskal onartezina”, “basakeria hutsa”, “mendekua”, “disparatea”, “epai bermeen aurkako atentatua”... zela. Iritzi publikoaren sailean nazioarteko komunikabide gehienek “konponbide demokratiko batetik urrun zegoen desproporztioztat” jo zuten hori; esparru politikoan, berriz, fiskaltzaren eskaerak indarkeriarik gabeko gertakari batzuentzat neurrigabe eta ez egokitzat, eta ikuspuntu politikotik kirtenkeriatzat, jo zituen esparru politiko ez-totalitarioaren gehiengoak.

“Procésa” aipatu dugu bi egia eztabaiaezin azpimarratzea-gatik. Lehena, indarkeriarekin edo gabe, Estatu espainoleko benetako botereentzat eta “establishment”arentzat independentismo katalana eta euskalduna direla eraitsi beharreko etsaiak; bigarrena, hainbeste denboran eta hainbesteko errepresioa ezagutu dugu, hain bakarrik eta hainbeste denboraz bizi izan ditugu lege antiterroristaren ondorioak, Auzitegi Nazionala, tortura sistematikoa, sakabanaketa eta urrunketa, etsaiaren kode penala eta legez kanporatzeak.. azkenean ohitu egin gara zentzugabekeria honetara.

ETA eta geroko denboran kokatzen den makro-sumario berri honek ezin ditu ezkutatu lehenagoko makro-sumarioak, aurreko hamarkadan aurrekari izan zituenak: 18/98 Egin-Xaki-Kas, HB-EH-Batasuna, Gestoras-Askatasuna, Jarrai-Haika-Segi, Egunkaria, Ekin, Batasuna-PCTV-ANV, Bateragune...



Eta ezin ditu ahantzarazi 200etik gora herritar espetxeratu zituzten epai judizial desproporzionatuak, espainiar judikatura estolderien parean kokatuz, lehenago “espainiar demokrazia”, gerra zikina edo estatu terrorismoa kokatu zituen bezala.

Kirtenkeria berri baten historia

Kirtenkeria judizial hau guztia 2013ko irailaren 30ean hasi zen, Guardia Zibilaren sektore erreakzionarioen, Auzitegi Nazionalaren eta orduan gobernuan zegoen eskuin politikoren bultzadarekin. Guardia Zibilak abiatu zuen orduan Herrira mugimendu herritarraren aurkako operazio bat eta 18 atxiloteta egin zituen Hernani, Bilbo, Iruñea eta Gasteizko Herriraren egoitzetan sartuz. Zenbait orduz luzatu ziren araketak eta Auzitegi Nazionalak behin behinean eten egin zuen Herriraren jarduna, bere egoitzen itxiera agindu eta preso defentsan ari zen mugimendu herritarrak zeuzkan kontu korronteak blokeatu zituen.

Polizia operazio gehiago egin zituzten hurrengo hilabeteetan; bigarrena, “Jaque” izena eman ziotena, EPPKren bitartekarien eta bi abokaturen aurkakoa; urtebetera hirugarren polizia operazioa, “Mate” deitu zutena, euskal preso politikoen abokatu ia gehienak atxilotuz. Geroago laugarren operazio bat iritsi zen, gustu txarreko “pastor” izena eman ziotena, eta osasun arazo ezberdinak dituzten euskal preso

asistentzian aritzen diren Jaiki Hadi kolektiboko medikuak eta psikologoak izan zituen jomugan.

Laburbilduz, 2013ko irailean Herriraren “zuzendaritza nazionalaren” bila joan ziren, legez kanporatutako Amnistiaren Aldeko Gestoren oinordetza operatibo eta funtzional berria zela aitzakiarekin. 2014ko urtarrilean ustezko Koordinazio Taldearen aurka eta preso ordezkarien, gizartearen eta euskal instituzioen artean bitartekaritza lan publikoa egiten zuten preso ohi taldearen bila joan ziren. Urte bat geroago, 2015eko urtarrilean, euskal preso politikoen defentsa juridiko eta penitentziarioaz arduratzen diren Abokatuen Kolektiboa hartu zuten begitan, eta Herrirako diruzaintza arduraduntzat zituztenak, preso urrunketa, sakabanaketa, mediku asistentzia eza, material edo defentsa beharren gastuak betetzearen arduradunak. Azkenik, 2015eko martxoan, gaixorik diren euskal preso asistentzia mediku eta psikologikoa koordinatzeaz arduratzen direnen bila joan ziren. Eta bitxia da, preso eskaera eta eskubideen defentsan ari ziren eragile guztiak desagitea helburu zuten 2014-2015eko urte hauetan hain zuzen, komunikabideak behin eta berriz saiatu izana esparru horretan disidentzia elikatzen saiatu izana.

Ongi antolatutako lau operazio izan ziren, Guardia Zibilak eta Auzitegi Nazionalako epaile batzuek “espetxeetako fronteko” estruktura deitu nahi dutenaren aurka. Errepresio sekuentzia bat, “dena da ETA” argumentua erabiliz burutua, eta hasten

ari zen bake prozesu baten aukerak zapuztea beste helbururik izan ez zuena. Eta eraso hori hasi zen, ETAk, Oslon inoiz iritsi ez zen espainiar delegazio baten zain zegoenak, Nazioarteko Egiaztapen Komisioari armagabetzea kudeatzea eta egiazta- tzea proposatu zionean: “ETAren eskaintza kudeatu eta, hori bideratzeko beharrezko bermean ematen baldin baziren, arma eta lehergai deposituen zigilatzea egiaztatzen parte hartzea”.

Aurreko testuinguruetan sakonduz

Polizia operazio hauek testuinguruan ezarriz, horren aurrekariak gogoratu beharko lirake 2010eko irailaren 5 hartara arte. ETAk bere eraso ekintzen amaiera iragarri zuen BBCn. Egun batzuk geroago, irailaren 19an, nazioarteari eta Bruselako sinatzaileei zuzendutako agiri berri batean adierazten zuen prest zegoela Gernikan “Bake eta konponbide demokratiokoetarako eszenatoki baterako akordioa” publiko egin aurreko astean konpromisoak hartzeko. Oraindik hilabete batzuk igaro beharko zuten 2011ko urtarrilaren 10ean suten iraunkor, orokor eta egiaztagarria iragarri zuen arte. Eta guzti horretatik urtebete igaro baino lehen, 2011ko urriaren 20an, ondorengo iragarpena egin zuen ETAk: “bere ekinbide armatuaren amaiera”. Beste taula batera aldatu zen jokoa.

Donostiako Aiete Jauregian Euskal Herriko gatazkaren konponbidea bultzatzeko Nazioarteko Konferentzia burutu eta hiru egunera eman zen argitara aurrekaririk gabeko agiri hau. Agiri horretan, “konfrontazio armatua gainditzeko” “konpromiso argi, tinko eta behin betikoa” berresten zuen ETAk, eta gobernu espainiarri eta frantsesari eskatzen zien gatazkaren ondorioak konpontzeko elkarriketa zuzen bat hastea. Orduraz geroztik esan daiteke agiri publiko honen

aurreko eta osteko historiari banatutako historia bilakatu zela Euskal Herriaren historia.

